

EAEko ekonomiaren urteko txostena 2008

Aldizkari hau honako helbide honetan dago eskuragarri:

<http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-341/es>

Harremanetarako helbide elektronikoa eta telefonoa:

economia@ej-gv.es

[945-01.90.77](tel:945-01.90.77)

Argitaratzailea: Eusko Jurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saila
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Legezko gordailua: VI 501/06

ISSN: 1887-1526


AURKIBIDEA

0 EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA	1
1 EAE-KO EKONOMIAREN TESTUINGURUA	9
Munduko ekonomiaren bilakaera	9
Analisia herrialdeka	12
Espainiako ekonomia	15
2 EAE-KO EKONOMIAREN ANALISIA	18
2.1 EKOIZPEN ARLOAK	18
Sarrera	18
Lehen arloa	19
Industria	20
Eraikuntza	24
Zerbitzuak	25
2.2 ESKARIA	27
Sarrera	27
Gastua azken kontsumoan	29
Kapital eraketa gordina	30
Kanpo saldoa eta lehiakortasuna	31
2.3 LAN MERKATUA	38
2.4 PREZIOAK, KOSTUAK ETA SOLDATAK	46
Prezioak	46
Kostuak eta soldatak	52
2.5 ARLO PUBLIKOA	53
2.6 FINANTZA ARLOA	56

0 EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA

2008. urtean zehar, EAEko ekonomiak nabarmen gutxitu zuen aurreko urteetan lortutako hazkunde erritmoa eta bere barne produktu gordinaren aldakuntza tasa %2,0an kokatu zuen, azken hamabost urteko apalena baita. Gehikuntza tasa moteltzeko prozesua 2007ko lehenengo hilabeteetan hasi zen, baina bereziki 2008ko azkenetan bizkortu zen jardueraren erritmoak nozitu zuen galera. Are gehiago, dagoeneko ezagutu diren 2009ko hilabeteetan, aldagai makroekonomiko behinenak tamaina handiko tasa negatibotan kokatu dira. Beraz, agerian geratu da EAEko ekonomiaren krisia sakona dela eta zailtasun handiak gainditu beharko direla krisi aurreko mailak berreskuratu ahal izateko.

EAEko eta munduko ekonomiaren hazkundera 1. irudia
Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eustat eta NDF.

EAEko ekonomiak erakutsi duen moteltzeko joeraren atzean, neurri handiagoan edo txikiagoan, ekonomia eremu guztietan eragina izan duten kanpo faktore batzuk daude. Oinarrian, higiezin burbuila bat dago, AEBei, Erresuma Batuari eta Espainiari, beste herrialde batzuen artean, kalte egin diena; ohikoena ez den banku sisteman hedatu den mesfidantza dago, likidezia falta eta kredituaren murrizketa larria ekarri dituena; herrialdeen arteko kapital fluxuak eten izana, eta nazioarteko merkataritzaren aurrekaririk gabeko

2008ko urteko txostena

beherakada ere aipatu behar dira. Hasierako erabakietan koordinazio falta igarri bazen ere, moneta eta zerga politiken arduradunek hainbat neurri hedakor onartu dituzte, txosten hau idazteko orduan fruituak ematen hasi direnak.

Oro har, munduko ekonomia %3,1 hazi zen 2008. urtean, azken hiru hamarkadetan batez beste lortutako gehikuntzarekin bat datorren zenbakia baita, baina azken urteetako balio altuen aldean erritmo galera bortitza erakusten duena. Garatutako herrialdeek garapen bidean daudenean baino neurri handiagoan nozitu zuten moteltzeko joera hori, finantza tresnak gehiago landu dituztelako eta beraien moneta sistemek lotura estuagoa dutelako. Hain zuzen ere, eremu horretako batez besteko hazkunde tasa %0,8ra mugatu zen eta munduko BPGri eginiko ekarpena lau hamarrenetakoa izan zen. Azaleratzen ari diren herrialdeen taldeak ere nabarmen gutxitu zuen bere hazkunde erritmoa, baina %6,0 hazi zen batez beste, 2,5 puntutik gorako ekarpena egiten.

EKONOMIA EREMUEN PISUA, HAZKUNDEA ETA EKARPENAK				1. TAULA			
	Pisua	Hazkundera	Ekarpena		Pisua	Hazkundera	Ekarpena
Ekonomia garatuak	55,3	0,8	0,4	Garatu gabeak	44,7	6,0	2,7
AEB	20,7	1,1	0,2	Txina	11,4	9,0	1,0
Eurogunea	15,7	0,8	0,1	India	4,8	7,3	0,4
Japonia	6,4	-0,7	0,0	Errusia	3,3	5,6	0,2
Erresuma Batua	3,2	0,7	0,0	Brasil	2,9	5,1	0,1
Kanada	1,9	0,4	0,0	Mexiko	2,2	1,3	0,0
Besteak	7,4	1,6	0,1	Besteak	20,1	5,0	1,0

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, NDFren datuetan oinarrituta.

Txinak eta Indiak lortu zituzten hazkunde tasa handienak eta bi herrialde horien artean munduko BPGren gehikuntzaren ia erdia ekarri zuten. Txinako gobernuak bertako ekonomiaren gehiegizko hazkunde bat saihesteko duela ez asko hartu zituen neurriek tokia utzi diote orain bultzada publiko garrantzitsu bati, atzerriko eskari eza kontsumo pribatuarekin eta azpiegituretan eginiko inbertsioarekin ordezkatzeko. Badirudi neurri horiek emaitza onak lortzen ari direla eta egun hauetan herrialde horretarako aurreikuspenak gorantz berrikusi

direla ezagutu dugu. Indiako moteltzea ez da horren bizia izan eta inguruneko herrialdeetan kalte handiak utzi dituzten arazoek Indian eragin txikiagoa utzi dutela ematen du.

Garatutako ekonomien artean, Japoniak jaso zituen emaitza ezkorrenak 2008. urtean, urteko BPG ia puntu bat murriztuta. Nazioarteko merkataritzaren beherakadak neurri handiagoan kaltetu ditu Japonia bezalako herrialdeak, beren hazkundera esportazioetan eta ekipamendurako inbertsioetan oinarritzen dituztelako. AEBetako motelaldia nabarmen apalagoa izan da, gaur eguneko krisiaren jatorria ekonomia hartan egon arren.

BPG ERREALAREN BILAKAERA

2. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Munduko ekonomia	3,6	4,9	4,5	5,1	5,1	3,1
AEB	2,5	3,6	2,9	2,8	2,0	1,1
Japonia	1,4	2,7	1,9	2,0	2,3	-0,7
Txina	10,0	10,1	10,4	11,6	13,0	9,0
Europar Batasuna	1,5	2,6	2,2	3,4	3,1	1,1
- Alemania	-0,2	1,2	0,8	3,0	2,5	1,3
- Frantzia	1,1	2,2	1,9	2,4	2,3	0,3
- Erresuma Batua	2,8	2,8	2,1	2,8	2,6	0,7
- Italia	0,0	1,5	0,7	2,0	1,6	-1,0
- Espainia	3,1	3,3	3,6	3,9	3,7	1,2
- EAE	3,1	3,7	4,0	4,4	4,1	2,0

Iturria: NDF eta Eustat.

Europar Batasunak nabarmen gutxitu zuen bere hazkunde tasa %1,1eko gehikuntza jaso arte. Hiruhilabetekako bilakaeran, 2008ko azken hiruhilabeteko aldakuntza tasa balio negatibotan kokatuta zegoen jadanik eta are negatiboagoak izan ziren 2009ko lehen hiruhilabeteko emaitzak. AEBetan ezagutu diren finantza erakundeen porrotak bezalakorik Europan gertatu ez badira ere, finantza sisteman sortutako mesfidantza, kredituaren murrizketa, munduko merkataritzaren beherakada, eskariaren ahultasuna eta ekonomia estatubatuarrarentzat eman diren arrazoi guztiak berehala hedatu ziren kontinente zaharrera ere. Europako herrialdeen artean, Italiak 2008. urtean, baina baita aurreko urteetan ere, erakutsi zuen ahultasuna azpimarratu behar da. Gainontzeko herrialde nagusiek ere nabarmen galgatu zuten beren

2008ko urteko txostena

hazkunde erritmoa eta 2009. urteko lehen hiruhilekoan guztiak atzeraldi sakon batean sartuta zeuden.

2008. urtean, ekonomiaren etorkizuna mehatxatzen zuten faktoreetako bat inflazioaren balizko gorakada bat zen, petrolioak eta beste lehengai batzuek nazioarteko merkatuetan izan zuten etengabeko garestitzearen ondorioz. Hain zuzen ere, Brent motako upelaren salneurria 140 dolarretara iritsi zen urte hartako uztailan. Hala ere, ordurako begi bistakoa zen mendebaleko ekonomiek moteltzeko joera bizkorra hartuko zutela eta horrek energiako prezioen gainean zegoen presioa arindu zuen. Hilabete gutxiko epe labur batean, petrolioaren upelak 40 dolar baino gutxiago balio zuen. Dagoeneko 2009ko lehen sei hilabeteko datuak ezagututa, petrolioaren batez besteko balioa 50 dolarretatik eta 38 euroetatik zertxobait gorago zegoen. Dena dela, munduko ekonomia 2010. urtean suspertuko delako itxaropenak prezioaren jaitsiera galgatu du eta goranzko tentsioak hasi dira berriro agertzen.

Industriaren lehengai metalikoak ere oso bizkor garestitu ziren 2006an eta 2007an, eskari sendo bati erantzuteko zailtasunak zituztelako. 2008. urtean zehar, berriz, maila apalagoetara zuzendu zuten beren bilakaera. Are gehiago, eskari faltak eta industria jarduerarako dauden igurikimen ezkorrek salgai horien merkatzea bizitu dute 2009ko lehen hilabeteetan. Azkenik, elikagairako erabiltzen diren lehengaiak atzean utzi zuten beren ohiko egonkortasuna eta 2008an oso garestitze garrantzitsua ezagutu zuten. Garestitzearen oinarrian arrazoi bat baino gehiago zegoen. Alde batetik, uzta txarrak jaso ziren, eta beste aldetik eskaria areagotu zen, bai lehengai horiek elikatze prozesuan berean erabiltzeko bai erregai fosilak ordezkatzeko aukera egokia izan zitezkeelako. Eskaintzak urritasunari erantzun du eta prezioak zertxobait apaldu dira azken hilabeteetan.

Inflazioaren tentsioak desagertzen ziren heinean, moneta agintariak askatasun handiagoz erabil zitzaketen interes tasak ekonomiaren susperraldiari laguntzeko. Hala eta guztiz ere, Erreserba Federalak eta Europako Banku Zentralak onartu dituzten interes tasen etengabeko jaitsierak eragin mugatua izan dute ekonomian, ekonomia eragileei emandako kreditua baldintzatzen zuen arrazoi nagusia eskura zegoen kreditu urria baitzen, kreditu horren kostua baino gehiago. Merkatuek ondo hartu zituzten erakunde horiek onartu zituzten beste neurri batzuek, hala nola likideziaren injekzioa.


Munduko ekonomia gero eta ahulago zegoen testuinguru horretan, EAEko ekonomiak %2,0 areagotu zuen bere barne produktu gordina. Tasa hori aurreko hiru urteetako emaitzaren erdia

da, gutxi gorabehera, baina Europako batez besteko hazkundea ia puntu batean gainditzen du. EAEko ekonomiaren hazkunde osoa barne eskariaren eskutik iritsi zen, kanpo saldoak portaera neutroagoa erakutsi zuen bitartean, hazkundeari ezer eman eta ezer kendu gabe. Argitaratu diren datuen arabera, inportazioen moteltzea esportazioena baino zertxobait biziagoa izan zen eta kanpo arloaren desoreka zuzentzen lagundu zuen.


Zenbait lehengaien bilakaera

2. irudia


Petrolio upelaren prezioa dolarretan




Petrolio upelaren prezioa eurotan



Lehengai metalikoen indizea eurotan



Janaritarako lehengaien indizea eurotan



Oharra: 2009ko datuak lehen seihilabetekoaren batez bestea dira.
Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

2008ko urteko txostena

Barne eskariaren bi osagai nagusiek nabarmen moteldu zuten beren hazkunde erritmoa. Hain zuzen ere, kontsumo pribatua, nahiko bilakaera egonkorra izaten baitu, %1,1 baino ez zen areagotu 2008. urtean, aurreko urteetako erritmoetatik oso aldentuta. Enplegu berria sortzeko zailtasunek, higiezinetan eta burtsan aberastasuna galdu izanak, familiek ekonomiaren etorkizunaz duten mesfidantzak eta kredituaren murriztapenak kontsumo pribatuaren aukerak gehiago hazteko mugatu zuten. Kapitaleko eraketa gordina, berriz, oso kaltetuta atera zen etxegintzaren krisiarengatik, etxebizitzaren salmentak jaisten ziren heinean indarra galdu zuelako. Horri gehitu behar zaio enpresetan instalatutako ekoizpen ahalmena gero eta gutxiago erabiltzen zela, negozioetarako igurikimenak okertu zirela eta kreditu bat lortzea zailagoa zela, ekoizteko inbertsioa gehiago areagotzea oztopatuz.

EAE-KO TAULA MAKROEKONOMIKOA

3. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2003	2004	2005	2006	2007	2008(a)
Barneko azken kontsumoa	4,1	4,4	3,8	3,8	3,8	2,0
Familien kontsumoko gastua	3,7	4,6	4,1	3,7	3,4	1,1
Herri administrazioen kontsumoa	5,8	3,7	2,7	4,3	5,5	5,9
Kapital eraketa gordina	5,1	7,5	6,1	5,9	5,5	1,4
Barne eskaria	4,4	5,2	4,4	4,4	4,4	1,9
Kanpo saldoaren ekarpena(*)	-1,4	-1,7	-0,7	-0,2	-0,5	0,0
Esportazioak	-0,8	4,8	5,1	6,2	7,6	4,5
Inportazioak	1,3	7,3	5,8	6,1	7,6	4,2
BPG (m.p.)	3,1	3,7	4,0	4,4	4,1	2,0
Lehen arloa	-6,1	31,3	-13,8	-4,4	9,8	-0,2
Industria	1,2	2,9	4,9	4,2	4,0	0,2
Eraikuntza	4,9	4,4	4,7	4,2	4,6	-0,1
Zerbitzuak	3,3	3,3	3,5	4,5	4,2	3,3
Merkatuko zerbitzuak	3,6	3,5	3,5	4,8	4,5	2,5
Merkatukoak ez diren zerbitzuak	1,7	2,0	3,4	3,3	2,6	7,3
Balio erantsi gordina	2,7	3,6	3,8	4,3	4,2	2,0
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	7,6	4,5	5,0	4,8	3,4	1,5

(a) Aurrerapena.

(*) BPGren hazkunderari eginiko ekarpena ehuneko puntutan.

Iturria: Eustat.

Eskaintzaren ikuspegitik, ahultasuna arlo guztietara hedatu zen, baina bereziki eraikuntzara, urteko batez besteko tasak negatiboak baitziren ordurako, eta industriara, hazkunde tasa ia hutsala jaso baitzuen eta 1993ko krisitik inoizko unerik gogorrena bizi baitu. Zerbitzuek bakarrik lortu zuten balio erantsiaren gorakada esanguratsu bat, neurri batean administrazioari lotutako jarduerak izan zuten bultzada sendoari esker, %7,3ko gehikuntza tasa lortuta. Merkatuaren diren zerbitzuak bi puntu gutxiago hazi ziren, baina gehikuntza erritmo garrantzitsu bat jaso zuten. Hala ere, txosten hau idazteko orduan, merkatuko zerbitzuak ere balio erantsia galtzeko fase batean murgilduta daude, familien kontsumoa gutxitu delako eta enpresen jarduera murriztu delako.

Hilabeteak aurrera zihoazen heinean ekoizpen jarduerak okertzen baziren ere, urteko batez bestean EAEko ekonomiak %1,1 areagotu zuen bere enplegua eta milioi bat lanpostuen kopurua aise gainditu zuen. Zenbateko horiek ez ziren nahiko izan lanpostu bat nahi zuten eskatzaile berrien kopurua konpentsatzeko eta langabezia tasa puntu erdi bat igo zen, %3,8an kokatu arte. Itxurazko ekoizkortasuna, berriz, ez zen iritsi aurreko urteetako tasetara, baina puntu baten inguruan kokatu zen.

EAE-KO EKONOMIAREN BESTE ALDAGAI NAGUSI ZENBAIT

4. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Biztanleko BPG EAPan neurtuta (UE27=100)	124,7	126,1	129,3	133,7	137,1	139,4
BPG erreal merkato prezioetan	3,1	3,7	4,0	4,4	4,1	2,0
Enplegua	2,5	2,8	2,2	2,2	2,8	1,1
Lan faktorearen itxurazko ekoizkortasuna	0,6	0,9	1,7	2,1	1,3	0,9
BPG nominala merkato prezioetan	6,5	8,3	7,5	7,8	6,7	5,0
BPGren deflatoea	3,3	4,4	3,4	3,3	2,5	3,0
KPI (urteko batez besteak)	2,8	3,0	3,3	3,4	2,8	4,1
Soldata igoera	4,4	4,0	4,5	4,9	4,2	5,0
Langabezia tasa	8,6	7,8	5,7	4,1	3,3	3,8

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Eurostaten, INEren eta Lan Harremanen Kontseiluaren datuetan oinarrituta.

2008ko urteko txostena

Urteko batez bestean, prezioen indizeek aurreko urtean baino balio altuagoak jaso zituzten 2008. urtean, baina urtearen bi erdietan aldagai horiek oso bestelako portaera erakutsi zutela zehaztu behar da. Hain zuzen ere, uztaila arte eta petrolioaren garestitzeak baldintzatuta, KPI indizeak goranzko norabidea hartu zuen eta %5,2ra iritsi. Une horretatik aurrera, ordea, energia merkatuko tentsioak laxatzen hasi ziren eta inflazioak moteltzeko joera hartu zuen. Joera hori 2009ko lehen erdira luzatu da eta gaur egun indize orokorra, lehen aldiz bere historian, aldakuntza tasa negatibotan kokatuta dago. Bilakaera hori, neurri handiagoan edo txikiagoan, inguruneke ekonomia guztietan hauteman da, deflazioan erortzeko aukeraz eztabaida piztu duelarik. EAeko KPIren indize orokorrak duen osaera kontuan hartuta, prezioak etengabe jaitsiko direlako arriskua oso txikia da.

1 EAE-KO EKONOMIAREN TESTUINGURUA

Munduko ekonomiaren bilakaera

2008. urtea gogoratua izango da aurreko urtean sortu ziren arriskuak bete-betean gauzatu zirelako. Orobat, urte horretan bukatutzat jo zen hirurogeietako hamarkadatik inoiz bizi den ekonomia hazkunde luzeena. 2007ko amaieran AEBetako finantza merkatuetan sortu ziren presioak tamaina handiko finantza krisi orokor bihurtu zen 2008. urtean zehar. Testuinguru horretan, kredituak izoztu ziren, balioen merkatuek behera egin zuten eta eragileen konfiantza inoizko maila apalenetara jaitsi ziren.

EKONOMIAREN ALDAGAI NAGUSIAK

5. TAULA

	BPG erreala		Inflazioa		Langabezia tasa	
	2007	2008	2007	2008	2007	2008
Mundua	5,2	3,2	4,0	6,0	---	---
Txina	13,0	9,0	4,8	5,9	---	---
ELGE	2,7	0,8	4,5	3,6	5,6	5,9
AEB	2,0	1,1	2,9	3,8	4,6	5,8
Japonia	2,3	-0,7	0,0	1,4	3,9	4,0
EB 27	2,9	0,9	2,4	3,7	7,1	7,0
Alemania	2,5	1,3	2,3	2,8	8,4	7,3
Frantzia	2,3	0,4	1,6	3,2	8,3	7,8
Erresuma Batua	3,0	0,7	2,3	3,6	5,3	5,6
Italia	1,6	-1,0	2,0	3,5	6,1	6,8
Espainia	3,7	1,2	2,8	4,1	8,3	11,3
Garapen bidean dauden herrialdeak	8,3	6,1	6,4	9,3	---	---
Afrika	6,2	5,2	6,3	10,1	---	---
Asia	10,6	7,7	5,4	7,4	---	---
Hego eta erdialdeko Amerika	5,7	4,2	5,4	7,9	---	---
Trantsizioan dauden herrialdeak	5,4	2,9	6,1	8,0	---	---

Iturria: ELGE, NDF, Txinako National Bureau of Statistics eta Eurostat.


2008ko urteko txostena

Herrialde ia guztiek, hala aurreratuek nola garapen bidean daudenek, krisiaren eragina nozitu zuten eta munduko ekonomiaren hazkundera, NDF erakundearen estimazioen arabera, nabarmen moteldu zen %3,2ra iritsi arte, hots, 2007an lortutako tasa baino bi puntu beherago. Azaleratzen ari diren herrialdeak izan ziren ekonomia orokorraren bultzagile nagusiak, garatutako ekonomiek bizitasuna galdu zuten bitartean, %0,9 baino ez baitziren hazi, 1982tik inoizko erritmo apalena delarik.


Barne produktu gordina
Urte arteko aldakuntza tasak

3. irudia


Ekonomia garatuak




Ekonomia garatu gabeak



Europar Batasuna



AEB



Iturria: NDF eta Eurostat..

Hasieran garapen bidean dauden ekonomiek mundu mailako krisiari aurre egin bazioten ere, esportazioen murrizketak, lehengaien merkatzeak eta kreditua lortzeko zailtasunek kalte egin zioten hazkunde tasari. Joera hori are biziagoa izan da 2009. urteko lehen hilabeteetan. Hala eta guztiz ere, gehikuntza tasa garrantzitsuak lortu zituzten, kanpo eskaria gutxitu zen arren eta erosteko ahalmena, inflazio altuaren ondorioz, galdu zuten arren. Hain zuzen ere, Txina %9,0 hazi zen eta India %7,3, bietan hazkunde tasak oso handiak zirelarik, nahiz eta 2007an lortutako mailetara ez iritsi. Bi herrialde horiei Errusia bezalako lehengai esportatzaileak ere gehitu behar zaizkie, azken herrialde horrek, petrolioaren garestitze biziari esker, %5,6 areagotu baitzuen bere BPG.

Garatutako ekonomiek, berriz, ezin izan zuten ekonomiaren krisia saihestu. Atzeraldia iritsi zen garaian, familiak oso zorpetuta zeuden. Kasu askotan, zorpetze horiek errenta gordin eskuragarri osoa gainditzen zuten. Halaber, finantza aktiboek beren balioaren zati handi bat galdua zuten. Aurrekoari gehitu behar zaio kreditu bat lortzeko baldintzak gogortu zirela, urtearen zati handi batean inflazioak oso gora egin zuela eta ekonomia jardueraren narriadurak lan merkatura oso bizkor kaltetu zuela. Aipatu diren arrazoi guztien ondorioz, ekonomia eragileen konfiantza maila inoiz baino gehiago jaitsi zen eta burtsen merkatua amildu zen, halako moldez ezen hasieran finantza krisia zena ekonomia errealerara igaro baitzen. Paradoxikoki, krisiaren erdigunea ziren AEBek %1,1eko hazkunde tasa lortu zuten, Europar Batasuneko batez besteko gehikuntza tasa gaindituz eta Japoniak epealdi berean nozitu zuen atzeralditik oso urrun.

2008ko lehen seihilekoan lehengaiek, elikagaiek eta petrolioak ezagutu zuten garestitze biziaren ondoren, urteko azken hilabeteetan joerak zeharo aldatu ziren eta ekoizkin horiek izugarritzko merkatzea izan zuten, munduko ekonomiaren ahultasunak petrolioaren eta lehengaien eskaria gutxitu zuenean eta banku zentral nagusien neurriek inflazioaren moteltzea eragin zutenean. Joera hori 2009ko lehen hilabeteetara luzatu da eta ekonomia garatu batzuetan dagoeneko tasa negatiboak jaso dira.

Etorkizunerako aurreikuspenak zalantzaz beterikoak dira eta oso ezkorrak. Aurreikuspenak egiten dituzten erakunde nagusiek uste dute txarrena 2009ko lehen seihilekoan gertatu dela, baina epe laburrean susperraldia iritsiko dela ezegokitzat jotzen dute.

Analisia herrialdeka

Txina %9,0 hazi zen 2008. urtean, hots, 2007an baino lau puntu gutxiago. 2008ko hazkunde tasa 2001etik inoiz jaso duten apalena da, urte hartan Txinako ekonomia %8,3 hazi baitzen. Are gehiago, 2003. urtetik lehen aldiz, gehikuntza tasa ez da bi zenbakietara iritsi. Txinak %13ko aldakuntza tasa lortu zuen 2007an eta Alemaniaren tokia bereganatu zuen munduko hirugarren potentzia gisa. Hala eta guztiz ere, higiezinaren arloaren bat-bateko doikuntzak eta merkataritzako bazkide nagusien –AEB, Europar Batasuna eta Japonia- eskariaren beherakada garrantzitsuak esportazioak geldiarazi zituzten, BPGren hazkunde bera galgatus. Salmenten beherakada areagotuz joan da 2009. urtea aurrera zihoan neurrian eta %20tik gorako jaitsierak bildu ditu esportazioetan. Asiako herrialdea duela hiru hamarkada kapitalismora hurbiltzeko erreforma hasi zenetik, ez du horrelako egoerarik bizi. Gogoratu behar da duela bi urte bakarrik txinatar gobernuaren kezka nagusia ekonomiaren gehiegizko hazkundera zela, baina aipatutako arrazoiek herrialde hartako agintariak barne merkatua suspertzeko neurriak hartzera behartu dute.

2007ko amaieran AEBetan agertu ziren ahultasuneko zantzu garbiak 2008ko hilabeteetan oso nabarmen areagotu ziren. Hain zuzen ere, estatubatuar ekonomia %1,1 hazi zen, azken zazpi urteetako emaitza baxuena bilduz. Lehenengo aldiz hamazazpi urteko epealdian, barne eskariak ez zion hamarrenik ekarri hazkundeari, etxebizitzetan eginiko inbertsioaren bat-bateko beherakadak, espero zena baino sakonagoa eta luzeagoa izan baita, eta, neurri txikiagoan, ekipamenduan eta softwarean eginikoak kontsumoaren eta esportazioen hazkundera bete-betean murriztu zutelako. Lan merkatuaren bilakaerak oso ondo islatzen du ekonomiaren ahultasuna, 2008. urtean ia hiru milioi lanpostu galdu zirelako, haietatik ia erdia azken hiruhilekoan. Azkenik, prezioen batez beteko igoera %3,8 izan zen 2008an, 1991tik inoiz izan den inflaziorik altuena baita. Gorakada horren atzean, lehengaiek eta elikagaiek urteko lehen bederatzik hilabeteetan nozitu zuten garestitze bizia dago. Goranzko joera hori zeharo aldatu da 2009ko lehen hilabeteetan eta maiatzean %-1,3ko aldakuntza tasa negatiboa jasotzera iritsi ziren herrialde hartan.

Japonia oso kaltetuta geratu zen panorama ekonomiko horretan. Inbertsio pribatuaren beherakada bortitzak, kontsumo pribatuaren geldotasunak eta kanpo eskariaren ahultasunak herrialde hartako barne produktu gordina %-0,7 jaistera behartu zuten, azken hamar urteetako emaitzarik txarrena baita. Hamabost urte luzeko hazkunde gorabeheratsuen ondoren, Japoniako ekonomia ez da gai izan hazkunderako oinarri sendoak ezartzeko eta azken urteetan hazkunderako oinarri nagusiak zirenak, hots, inbertsioa gehi esportazioak, guztiz kaltetuta

geratu dira ekonomiaren atzeraldian, nazioarteko merkataritzaren kolapsoaren ondorioz eta enpresen mozkinen beherakadaren ondorioz. Langabezia tasak egonkortasun harrigarria erakutsi zuen eta ia ez zuen nabaritu tamaina handiko enpresa esportatzaile askok iraitzi zituzten langile multzo handiak. Azkenik, inflazioak, gainontzeko ekonomia aurreratuetan ez bezala, bilakaera positiboa izan zuen prezioak igo zirelako eta atzean utzi zituen tasa negatiboak. Hala ere, 2009. urtea aurrera zihoan heinean, kontsumoko prezioak berriro sartu dira tasa negatibotan.

Europako ekonomiaren egoera hobea izan zen arren, ezin izan ziren zurrumbilo orokorrari eta kanpo eskariaren beherakadari aurre egin. Finantza krisiaren benetako eraginak beranduago iritsi ziren arren, herrialde gehienetan izan zuen eraginak laurogeita hamarretan bizitako egoera gogorarazten zuen. Garai hartan ere krisiak ekonomia jardueraren beherakada handia eta langabeziaren gehiegizko gorakada eragin zituen. Kontsumo pribatuaren geldotasunak eta inbertsioaren zein esportazioen beherakadak azaltzen dute, neurri handi batean, barne produktu gordinaren bilakaera. Dena dela, %0,9ko tasa positiboa lortu zen. Langabezia tasa egonkor mantendu zen eta prezioek goranzko joerari atxiki zioten, lehengaien eta elikagaien garestitzearen ondorioz.


Alemanian, esportazioen moteltze biziak kanpo eskariak hazkunderari hamarrenik ez ekartzea eragin zuen, ia zortzi urteko epealdian lehen aldiz. Horri erantsi behar zaio kontsumo pribatua ahul zegoela eta inbertsioak indarra galdu zuela, 2005. urtetik jaso duen hazkunde tasarik apalena eskuratuz. Frantzian, kontsumo pribatuak hazkunderari eutsi zion, baina hori ez zen nahiko izan inbertsioaren eta esportazioen beherakada konpentsatzeko eta herrialde hartako BPG gutxiago hazi zen, %0,4ko tasa batean geratu arte, 1993ko krisitik inoiz jaso duen maila apalena baita. Lehendabizi, higiezinaren merkatuaren amiltzeak eta gero finantza krisiak oso egoera zailean kokatu zuten Erresuma Batua, krisi honetatik irteteko hazkunderaren oinarriak berregituratu beharko direla agerian utziz. Hain zuzen ere, etxebizitzetan eginiko inbertsioaren beherakada eta kontsumo pribatuaren ahultasuna nabarmendu behar dira, bertako BPG %0,7ra eramane zutelako, kanpo arloak hazkunderari hamarren batzuk ekarri zizkion arren, beste herrialde batzuetan ez bezala. Italiako ekonomia %1,0 jaitsi zen 2008an, 1975etik jaso duen beherakada handiena baita. Europar Batasuneko emaitza txarrenetarikoa izan zuen eta barne eskariaren osagai guztiek eta kanpo arloak beheara egin zuten. Aurreikusita dagoen bezala 2009ko hazkundera ere negatiboa bada, Bigarren Mundu Gerratik Italiaren BPGak izango duen lehen atzeraldi jarraitua izango da honako hau.

2008ko urteko txostena


BPGren bilakaera zenbait herrialdetan
Urte arteko aldakuntza tasak

4. irudia


Frantzia




Alemania




Erresuma Batua




Japonia



India



Txina



Iturria: NDF, Txinako National Bureau of Statistics eta Eurostat.

Europako herrialde nagusiek azken urteetan langabezia murrizteko hartu dituzten neurriek lagundu dute, kasu gehienetan, langabezia tasak 2008. urtean kontrolpean eta nahiko egonkor mantentzen. Are gehiago, Alemanian eta Frantzian 2008ko langabezia tasak 2007koak baino apalagoak izan ziren. Hala ere, egonkortasun hori bertan behera geratu zen 2008ko amaieran eta, bereziki, 2009ko lehen hilabeteetan, zeren eta aurtengo lehen lau hilabeteetan ia 2,5 milioi lanpostu galdu baitira Europar Batasun osoan, 2008. urtean 2 milioi lanpostu desagertu ziren bitartean.

Azkenik, inflazioak oso bestelako norabidea hartu zuen. 2008. urtean, elikagaien, lehengaien eta petrolio gordinaren prezio altuek inflazioaren gorakada garrantzitsua eragin zuten Europako herrialde guztietan. Krisiak okerrera egiten zuen heinean eta eskariak murrizten ziren neurrian, salneurrien igoerak moteltzen hasi ziren, 2009ko maiatzean hazkunde hutsaletan edo negatibotan kokatu arte, Frantzian gertatu zen bezala.

Espainiako ekonomia

Finantziaziorako zailtasunek, etxegintzaren geldialdiak, langabeziaren gorakadak eta igurikimen ezkorrek kontsumoaren eta inbertsioaren azken hamabost urteko amiltzerik handiena eragin zuten Espainiako ekonomian 2008an, 1993. urteko atzeraldian ezagutu ziren arazoak gogoraraziz. Hain zuzen ere, espainiar ekonomia %1,2 hazi zen, ia osorik kanpo arloaren bultzadari esker lotuta, hazkundeari 1,1 puntu ekarri zizkiolako. Eskaintzaren ikuspegitik, ekonomiaren bilakaera ezkorra nabaria zen eta arlo gehienek hazkunde tasa negatiboak jaso zituzten. Salbuespen bakarrak energia eta zerbitzuak izan ziren, gehikuntza tasa positiboak lortu zituztelako, baina ohikoak baino askoz ere apalagoak izan ziren. Azpimarratzekoa da eraikuntzaren emaitza, aurreko urtekoa baino ia zazpi puntu txikiagoa izan baitzen, 1996tik edo lehenagotik izan duen datu txarrena jasoz.

Zalantzarik gabe, ekonomiak hartu zuen norabide horretan kaltetuen atera zen arloa lan merkatua izan zen. Hain zuzen ere, 2008. urtean lanik gabeko pertsonen kopurua %41,3 areagotu zen 2007aren aldean, hots, 756.000tik gora langabe gehiago zeuden, INEren biztanleria aktiboaren gaineko inkestaren arabera. Beraz, 2.590.600 langabe zeuden guztira. Halako kopururik ez zen jaso 1999. urtetik. Langabezia tasa %11,3ra igo zen, Europar Batasuneko altuena delarik. Arloka aztertuta, langabezia guztietan hazi zen, baina bereziki zerbitzuetan, eraikuntzan eta industrian.

2008ko urteko txostena

Prezioen bilakaerari dagokionez, KPI indizea %4,1era igo zen, Europako gainontzeko herrialdeetan bezala, lehengaiak eta elikagaiak urteko lehen hiru hiruhilabeteetan izan zuten gehikuntza biziak baldintzatuta. 2009. urtean zehar, goranzko joera hori osorik aldatu zen eta martxoan, lehenengo aldiz bere historian, hazkunde tasa negatiboa lortzen zuen Euroguneko lehen herrialdea izan zen.

ESTATUKO TAULA MAKROEKONOMIKOA

6. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2003	2004	2005	2006(B)	2007(B)	2008(A)
Azken kontsumoko gastua	3,4	4,7	4,5	4,1	3,8	1,4
-Familien gastua kontsumoan	2,9	4,2	4,2	3,9	3,4	0,1
-Administrazioaren gastua kontsumoan	4,8	6,3	5,5	4,6	4,9	5,3
Kapital eraketa gordina	5,2	5,2	6,5	7,7	5,0	---
-Kapital finkoaren eraketa gordina	5,9	5,1	7,0	7,1	5,3	-3,0
Nazio eskaria (*)	3,9	4,9	5,3	5,4	4,4	0,1
Esportazioak	3,7	4,2	2,5	6,7	4,9	0,7
Inportazioak	6,2	9,6	7,7	10,3	6,2	-2,5
BPG	3,1	3,3	3,6	3,9	3,7	1,2
Nekazaritza eta arrantza	-0,5	-2,3	-8,2	2,5	3,0	-0,6
Energia	5,4	1,9	1,2	-0,1	0,8	1,9
Industria	1,2	0,7	1,1	1,9	2,8	-2,7
Eraikuntza	4,4	5,1	5,2	5,0	3,5	-3,3
Zerbitzuak	3,0	3,8	4,3	4,4	4,6	3,1
Produktuen gaineko zerga garbiak	6,6	4,4	6,1	3,7	0,7	-0,1
Gogoratzekoak:						
-Kontsumo prezioen indizea	3,1	3,1	3,4	3,6	2,8	4,1
-Enplegua	2,4	2,7	3,2	3,2	2,9	-0,6
-Administrazio publikoen defizita (BPGrena)	0,0	-0,2	1,1	1,8	2,2	-3,8

(*) BPGren hazkunderari eginiko ekarpena.

(B) Behin-behinekoa (A) Aurrerapena.

Iturria: INE eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

Azkenik, Administrazio Publikoek 41.874 milioi euroko defizita izan zuten 2008. urtean, hots, BPGren %3,82, Administrazio Zentralak, Autonomia Erkidegoek eta Toki Erakundeek jaso zuten saldo negatiboaren ondorioz. Emaidza horiek agerian uzten dute aurrekontuen ikuspegi batetik Administrazio Zentralak bereganatu zuela krisiari aurre egiteko kostuaren zati

handiena. Zor publikoa ere areagotu zen eta BPGren %39,4ra iritsi. Hala ere, Euroguneko batez bestearen ia 30 puntu beherago kokatu zen.

2 EAE-KO EKONOMIAREN ANALISIA

2.1 Ekoizpen arloak

Sarrera

2008. urtean, EAEko ekonomiaren bilakaerak moteltzeko joera nabarmena erakutsi zuen. Hainbat urtez hazkunde tasa handiak lortu ondoren, EAEko ekonomiak apaltzeko norabidea hartu zuen, bereziki urteko bigarren seihilekoan. Hori horrela izanda, urte osorako estimatu den urte arteko aldakuntza tasa %2,0an kokatu zen. Tasa hori oso ahula da aurreko urteetako emaitzekin alderatzen bada eta okertuz joan zen hiruhilekoak aurrera zihoazen heinean. Termino nominaletan hazkundera %5,0 izan zen.

2007ko udan hasi zen finantza krisiaren itzala 2008ko bilakaera ekonomikoan indar handiz hauteman zen. Finantza arloko tentsioek familiei eta enpresei ematen zaizkien kredituak lortzeko baldintzak gogortu zituzten. Banku erakundeek kreditua emateko orduan ezartzen dituzten irizpideak murriztaileagoak ziren, oro har. Ekitaldiaren beste ezaugarri batzuk eraikuntzaren doikuntza prozesua eta etxegintzarekin zerikusia duten jarduera adarrena izan ziren.

EKONOMIA ARLOEN ALDAGAI NAGUSIAK

7. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	BEG bolumen indizea		Enplegua		Ekoizkortasuna	
	2007	2008	2007	2008	2007	2008
Lehen arloa	9,8	-0,2	-4,0	1,7	14,4	-1,9
Industria	4,0	0,2	3,3	-0,4	0,7	0,6
Eraikuntza	4,6	-0,1	1,1	-4,1	3,5	4,1
Zerbitzuak	4,2	3,3	3,2	2,4	1,0	0,8
Guztira	4,1	2,0	2,8	1,1	1,3	0,9

Iturria: Eustat.

Eskaintzaren ikuspegitik, azpimarratzekoa da ekonomiaren arlo guztiek hazkunde txikiak eta ahulak jaso zituztela, salbuespen bakarra zerbitzuak zirelarik, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiaren bultzagile bakarra izan baitzen. Lehen arloak %-0,2ko urte arteko aldakuntza tasa jaso zuen 2008ko batez bestean eta atzean utzi zuen hazkunde garrantzitsuko urte bat. Industriari dagokionez, hazkunde tasa %0,2 izan zen, kanpo eta barne eskariek hasi berri zuten narriaduraren ondorioz. Ekonomiaren moteltzeak eraikuntza kolpatu zuen indar handiagoz eta higiezinaren arloko doikuntza saihestezinak oso garbi nabaritu ziren. Okertzeko joera hori, neurri handi batean, zerbitzuen arloko hazkunde sendoak konpentsatu zuen, 2008. urtean %3,3 areagotu baitzuen bere balio erantsia. Urte arteko aldakuntza tasa hori merkaturatzen ez diren zerbitzuen bilakaera bikainari esker, bereziki, lortu zen.

Lehen arloa

Lehen arloaren balio erantsi gordinak %-5,2ko beherakada izan zuen 2008. urteko batez bestean termino nominaletan, %-0,2ko murrizketa bolumenean eta %-5,0aren inguruko jaitsiera prezioetan.

Nekazaritzako adarren artean, 2008ko ezaugarriarik garrantzitsuena mahastien azken ekoizpenaren balioaren gorakada izan zen, beste labore batzuen kaltetan, bereziki patatarena. Ekoizpen fisikoen bilakaerak baratzezaintzaren eta pataten produkzioaren jaitsierak erakusten zituen.

LEHEN ARLOKO ADIERAZLE NAGUSIAK

8. TAULA

Urteko aldakuntza tasak

	BEG bolumen indizea			BEG uneko prezioetan		
	2006	2007	2008	2006	2007	2006
Nekazaritza eta arrantza	-4,4	9,8	-0,2	-1,8	-8,0	-5,2

Iturria: Eustat.

2008ko urteko txostena

Abeltzaintzaren alorrean, behi esnearen, ahunzkiaren eta untxi haragiaren prezioa igo zela egiaztatu zen. Aitzitik, behi esnearen eta haragiaren ekoizpenak gutxitu ziren. Abeltzaintzaren ekoizpenaren bilakaerak, unean uneko prezioetan neurtuta, beherakada orokorra aurkeztu zuen bere bolumenean. Basogintzak, berriz, pinu radiata eta eukalipto ez ziren beste egurrak mozteko baimen gehiago izan zuen. Beste aldetik, pinu radiataren salneurriak jaitsiera garrantzitsua izan zuen. 2001. urtetik, prezio horiek beheranzko joera garbia erakutsi dute, 2008an areagotu dena.

Industria

EAEko industriaren balio erantsiak %0,2ko urte arteko hazkunde tasa jaso zuen 2008. urtean, aurreko urteetako emaitzen aldean sektore horrek moteltzeko joera bizia hartu duela agerian utziz. Bilakaera txar horren arrazoi nagusiak barne eskariaren narriadura eta EAEko esportazioak erosten dituzten herrialdeek ezagutu berri zuten abagune ekonomiko zaila dira. Izan ere, industriaren adarrek 2008. urtean izan zuen okertze gero eta biziagoa orokorra zen eta nazioarteko inguruneko ekonomia garatu gehienetan ere gauzatu zen.

INDUSTRIAREN BILAKAERA

9. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak


	Industriaren balio erantsia						
	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008
EB-27	1,3	1,3	2,6	2,0	3,1	3,1	1,0
Eurogunea	1,0	0,7	2,3	1,7	2,9	3,0	0,9
Alemania	0,3	-0,1	1,6	1,0	2,9	2,9	1,4
Frantzia	1,0	1,0	2,6	1,8	2,2	2,4	0,7
Erresuma Batua	1,8	2,8	2,8	2,2	3,0	2,8	0,7
Italia	0,6	-0,3	1,7	0,7	2,0	1,7	-0,9
Espainia	2,5	2,7	3,1	3,3	3,9	4,0	1,3
EAE	1,1	1,2	2,9	4,9	4,2	4,0	0,2
AEB (*)	-0,1	1,3	2,5	3,3	2,3	1,5	-2,2
Japonia (*)	-1,3	3,0	4,8	1,5	4,2	2,9	-3,4

(*)Industriaren ekoizpena.

Iturria: Eurostat, Eustat (EAE) eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioa (AEB eta Japonia).

Industria ekoizpenaren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak

5. irudia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten eta Eurostaten datuetan oinarrituta.


2008ko urteko txostena

EAEko industriaren balio erantsiaren bilakaera 2008an zehar aztertzen denean, agerian geratzen da aldagai horrek moteltzeko joera garbia erakutsi zuela hiruhilabeteak aurrera zihoazen heinean. Urte arteko hazkunde tasarik gorena 2008ko lehen hiruhilekoan lortu zen eta harez geroztik beheranzko joera bizia hartu zuen, urte amaieran tasa negatibotan sartuta egon arte. Joera bera erakutsi zuen EAEko industria ekoizpenaren indizeak. IPIren datuek, ziklo-joera serieran, hazkunde tasa handiena, eta positiboa zen bakarra, urtarrilean jaso zuten, urtea amaitu arte isuri negatiboari eusteko.


EAEko industria ekoizpenaren ziklo bilakaera ondasunen helburu ekonomikoaren arabera Ziklo-joera seriaren urteko tasa

6. irudia


Ekipamendurako ondasunak




Bitarteko ondasunak



Kontsumoko ondasunak



Energia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten eta Eurostaten datuetan oinarrituta.

Ondasunak ekonomia helburuaren arabera sailkatzen badira, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako IPIk 2008an izan zuen moteltzeak, gehiago edo gutxiago, talde guztiei eragin zien, salbuespen bakarra energia izan zelarik. Kontsumorako ondasunen ekoizpenak, bereziki kontsumo iraunkorreko ondasunen adarrak, beherakada handiena jaso zuen aurreko urteko emaitzaren aldean. Beste aldetik, ekipamendurako ondasunen eta bitarteko ondasunen ekoizpenak ere narriadura esanguratsua erakutsi zuten, bereziki urteko azken hilabeteetan.

EAEko industriaren adarren portaera zehatzago aztertzen bada, Eustatek industria produkzioaren indizeaz argitaratu dituen datuek egiaztatzen dute 2008. urtean ekoizpenaren hazkunde handienak material elektrikoak, garraio materialak, petrolioaren fintzeak eta energia elektrikoa, gasa eta urak lortu zituztela. EAEko industrian pisu gehien duten adarrek, hots, metalurgia eta artikulua metalikoek eta makineriak, batez bestea baino tasa negatibo txikiagoak jaso zituzten. Beste aldetik, mineral metalikoak eta metalikoak ez direnak, egurgintzak eta larrugintza eta zapatagintzak beherakada garrantzitsuak izan zituzten 2008. urtean beren ekoizpen indizeetan.

Industriaren arloa neurtzen duten beste adierazle batzuek ere industria produkzioaren indizeak zehaztu duen joera bera egiaztatzen dute. Esate baterako, industria giroaren indizeak eta industriaren enpresen eskari zorroak okerrera egin zuten 2008. urtean aurreko urtean emaitzen aldean. Aldagai horietan, bilakaera ezkorrena bitarteko ondasunetan eta, bereziki, kontsumorako ondasunetan gauzatu zen.

EAE-KO INDUSTRIAREN BEG-REN BILAKAERA

10. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak.

	BEG bolumen indizea			BEG uneko prezioetan		
	2006	2007	2008	2006	2007	2008
Industria	4,2	4,0	0,2	5,8	7,3	4,4

Iturria: Eustat.

2008ko urteko txostena

Eraikuntza

Eraikuntzak moteltzeko joera bizia nozitu zuen 2008. urtean zehar Euskal Autonomia Erkidegoan, batez beste %-0,1eko jaitsiera jasota, hamarkada oso batez %4tik gorako hazkunde tasak lortu eta gero. Urteko batez bestean emaitza txarra jaso zuen arren, ezinbestekoa da arlo horren balio erantsiak hiruhilabetez hiruhilabete izan zuen bilakaera zehaztea. Hain zuzen ere, urteko lehen hiru hilabeteetako hazkunde tasa %2,3 izan zen, baina azken hiruhilabeteko tasa %-2,9ra jaitsia zen, hiruhilabetekako kontabilitatearen arabera. Higiezinaren merkatuaren doikuntza urte osoan zehar mamitu zen eta oinarrian etxebizitzaren salneurriaren gorakada gero eta txikiagoak zeuden, ondasun horien balio irabaziak txikiagoak izango zirela pentsaraziz eta finantzaziorako baldintzak zurrunduz.

ERAIKUNTZA ARLOAREN ADIERAZLE NAGUSIAK

11. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2005	2006	2007	2008
BEG bolumen indizea	4,7	4,2	4,6	-0,1
BEG uneko prezioak	9,4	8,4	8,7	4,1
Deflatorea	4,5	4,1	3,9	4,3
Enplegua	3,7	3,4	1,1	-4,1
Ekoizkortasuna	1,0	0,8	3,5	4,1
Etxebizitzaren salerosketak	22,8	13,0	7,0	-20,5
Eskainitako etxebizitzak	6,0	12,5	14,1	31,1
Prezioa €/m ²	11,7	8,9	5,9	-2,9
Bisatuak. Etxebizitzaren kopurua	-6,6	-2,8	4,2	-35,3

Iturria: Eustat, Etxebizitza Saila (Eusko Jaurlaritza) eta Etxebizitza Ministerioa.

Higiezinaren doikuntza agerian geratu da eraikuntza arloko jarduera neurtzen duten hainbat adierazletan. Eskariaren presioa leundu zela begi bistan zegoen Etxebizitza Ministerioak etxebizitzaren salmentez argitaratzen dituen datuen bilakaeran. 2008. urtean, 21.122 salerosketa egin ziren Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, aurreko urteko emaitzen aldean %-20,5eko beherakada delarik. Beste aldetik, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak salmentarako eta alokatzeko eskaintzen diren etxebizitzaz argitaratu dituen datuek %31,1eko hazkunde garrantzitsua izan zuten. Hasitako etxebizitzaren beherakada, 2008. urtean 13.787 etxebizitzetara

jaitsi baitzen, azken hamarkadako handiena da. Zalantzarik gabe, gehiegizko eskaintza gutxitzeko ezinbestekoa da prezioak merkatzea eta, hain zuzen ere, etxebizitzaren metro karratua EAEn, eurotan neurtuta, %-3,0aren inguruko jaitsiera izan zuen 2008an. Hala eta guztiz ere, Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzaren eraikuntza publikoak pisu handia dauka etxebizitzaren gutzitzean eta horrek eraikuntzak, oro har, nozitu duen beherakada zertxobait leundu du.

Analisia enpleguan fokatzen bada, iturri guztietako datuek iradokitzen dute sektoreak moteltzeko joera bizia hartu zuela. Izan ere, kontu ekonomikoek %-4,1eko aldakuntza tasa estimatu zuten, aurreko urteko emaitzaren aldean bost puntuko beherakada delarik.

Zerbitzuak

EAEko zerbitzuen arloak zertxobait gutxitu zuen bere hazkunde erritmoa, 2008ko batez bestean %3,3an kokatu baitzen. Hori horrela izanda, jarduera adar hau ia puntu bat moteldu zen aurreko urteko emaitzaren aldean.

ZERBITZUEN ARLOAREN ADIERAZLE NAGUSIAK				12. TAULA
Urte arteko aldakuntza tasak				
	2005	2006	2007	2008
BEG bolumenen indize kateatua	3,5	4,5	4,2	3,3
BEG uneko prezioak	6,6	8,2	7,1	6,8
Deflatorea	3,0	3,6	2,8	3,5
Enplegua	3,5	3,1	3,2	2,4
Itxurazko ekoizkortasuna	0,0	1,4	1,0	0,8
Barne merkataritzaren indizea	0,1	5,9	3,4	-4,6
Bidaiarien gualdiak	5,2	11,5	2,6	-4,2
Batez besteko egonaldia (egunak)	1,87	1,90	1,88	1,86
Plazen betetze maila (ehunekoa)	47,25	47,85	46,56	43,87

Iturria: Eustat.

2008ko urteko txostena

Azpiatalka aztertuta, moteltzeko joera merkaturatzen diren zerbitzuetan bakarrik gauzatu zen, hazkunde tasa %2,5era mugatuta, salmentarako ez diren merkatuak nabarmen areagotu ziren bitartean, hazkunde tasa %7,3ra igoaraziz. Lehenengo multzoan, begi bistakoa zen dagoeneko familien eta enpresen eskariaren beherakada, kontsumoari eta enpresei lotuago dauden zerbitzuetan eragin kaltegarria uzten. Beste aldetik, administrazioak eskaintzen dituen zerbitzuek modu hedakor batean erantzun zuten, erakunde publikoek nahita ezarri zuten zikloaren aurkako politika baten ondorioz.

Analisia salmentara zuzendutako zerbitzuen jardueran fokatuta, 2008. urterako argitaratu diren ekonomia adierazleek narriadura bizi bat erakutsi zuten aurreko urteko emaitzen aldean. Merkataritzari dagokionez, Eustatek argitaratzen duen barne merkataritzako indizeak hazkunde tasa negatiboa izan zuen txikizkako zein handizkako merkataritzaren salmentetan. Handizkakoa aztertuta, beherakada orokorra izan zen eta oso garrantzitsua erdilantutako, makineria eta ekipamendurako ekoizkinen salmentan. Txikizkako merkataritzaren barnean, jaitsiera orokorretik salbuetsi zen bakarra pertsonarentzako ekipamendua izan zen. Denda motaren arabera, okertzea denda txikietara eta azalera ertaineko zein handiko dendetara hedatu zen.

ZERBITZUEN BEG-REN BILAKAERA AZPISEKTOREKA. BOLUMENAREN INDIZE KATEATUA 13. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2005	2006	2007	2008
Zerbitzuak guztira	3,5	4,5	4,2	3,3
Merkatuko zerbitzuak	3,5	4,8	4,5	2,5
Merkatukoak ez diren zerbitzuak	3,4	3,3	2,6	7,3

Iturria: Eustat.

Garraioari dagokionez, Hegazkineria Zibilerako Zuzendaritza Orokorrak EAeko aireportuen trafikoaz eskaini dituen datuek atzerakada garrantzitsua izan zuten 2008. urtean, bai bidaiarien kopuruan bai salgaien kopuruan, Estatu barruan zein nazioartekoan. Bestelako garraiobideei dagokienez, Euskotreneko sarea erabili zuen bidaiarien kopuruak behera egin zuen. Jaitsiera hori Bizkaian eta Gipuzkoan gauzatu zen. Araban, ordea, erabiltzaileen kopuruak gora egin zuen, Gasteizko tranbia inauguratu zelako. Bilboko metroak, berriz, %0,5 areagotu zuen

bidaiarien kopurua, Ezkerraldea gurutzatzen duen 2. lerroa erabili zuten bidaiarien gorakadari esker.

EAEko turismoari dagokionez, Eustatek argitaratzen duen establezimendu turistiko hartzaileen inkestak adierazten du 2008. urtean turismoak bizitasuna galdu zuela. Zehazkiago adierazita, gaualdien kopuruak, bidaiarien etorrerak, batez besteko egonaldiak eta ostatuen betetze mailak jaitsiera handiak izan zituzten. Horiek horrela, batez besteko egonaldia eta betetze maila, plazatan neurtuta, 1,86 egun eta %43,87 izan ziren, hurrenez hurren, 2008. urteko batez bestean.

Gaualdiek eta bidaiarien etorrerak lortu zituzten hazkunde tasak ez ziren iritsi aurreko urtean jasotako mailetara. Bizitasunaren galera atzerriko turisten artean eta, bereziki, Estatutik etorri zirenen artean gauzatu zen. Munduko ekonomiaren egoerak eta hedatuta zegoen konfiantza krisiak ez zuten turismoa bultzatu 2008. urtean. Bisitarien artean lortu ziren gorakada apurrak Errioxatik, Nafarroatik eta Euskaditik bertatik iritsitakoetan mamitu ziren. Europako herrialdeen artean, azpimarratzekoa da turista frantziar eta austriarren hazkundera. Edozein modutan, turista horien helburu behinena EAEko hiriburuak dira, barnealdeko eta kostaldeko herrien kaltetan.

Beste aldetik, merkaturatzen ez diren eta, neurri handian, arlo publikoak ematen dituen zerbitzuak %7,3 gehitu ziren 2008. urtean. Tasa horrek ia bost puntutan gainditzen du aurreko urtean jasotakoa.

2.2 Eskaria

Sarrera

EAEko ekonomiaren jarduerak indarra galdu zuen 2008. urtean eta %2,0 baino ez zen hazi, barne eskariak oraindik erakutsi zuen sendotasunari esker. Hala eta guztiz ere, urtean zehar aldaketa garrantzitsua gauzatu zen hazkunde erritmoan. Finantza merkatuetan ezarri ziren murrizketak direla eta, etxebizitzetan eginiko inbertsioa oso bizkor gutxitu zen. Orobat, familien konfiantzak okerrera egin zuen, familien gastua murriztuz. Izan ere, kontsumo pribatuak aldakuntza tasa negatiboa jaso zuen 2008. urtean eta administrazio publikoen

2008ko urteko txostena


kontsumoak konpentsatu zuen, neurri batean, beherakada hori. Horiek horrela izanda, azken kontsumoko gastua %2,0 hazi zen eta kapitaleko eraketa gordinak aurreko urteetako bizitasuna galdu zuen, %1,5 hazita, hots, aurreko urtean baino lau puntu inguru gutxiago.

Barne eskariak egin zion ekarpen positibo bakarra barne produktu gordinaren hazkunderari, kanpo eskariak inolako ekarpenik ez baitzion egin, aurreko urteetako ekarpen negatiboekin amaituz.


Eskariaren osagaien hazkundera

7. irudia


Azken kontsumoa




Kapital eraketa gordina



Barne eskariaren ekarpena



Kanpo eskariaren ekarpena



Iturria: Eustat.

Gastua azken kontsumoan

EAEko familien gastua kontsumoan %1,1 hazi zen 2008an urte arteko tasan, hots, 2007an baino bi puntu inguru gutxiago. Tasa hori azken hamahiru urteetako txikiena da, agregatu horren bilakaeran. Urtean zehar beheranzko joera bizia eta etengabea erakutsi zuen, urte hasieran %2,4ko hazkundera jasota, baina azken hiruhilekoan %-0,4ko tasa negatibora iritsi zen. Familiek bizi duten konfiantza krisiak kontsumitzeko erabakiak murriztera behartu zuen. Ekonomia orokorraren bilakaeraz familiek duten igurikimen ezkorrek, lanpostuen etorkizunaz agertu diren ziurgabetasunak eta aberastasunaren atzerakadak familien kontsumoaren beherakada garrantzitsua eragin zuten 2008. urtean. Konfiantza faltaren ondorioz, familiek nahigo dute erosketa handiak geroratzea, etorkizunari buruzko usteak argitzen diren unean egiteko.

Moteltzeko joera hori egiaztatuta geratu da familien kontsumoaz ezagutarazten diren adierazleen bilakaera aztertzen denean. Izan ere, barne merkataritzako, txikizkako eta azalera handietako adierazleek familien gastuaren bilakaerak okerrera egin duela eta ekonomiaren etorkizunaz iritzi ezkorragoa dutela agerian uzten dute. Ondasun iraunkorreko kontsumoei dagokienez, turismoen matrikulazioak %-22,6ko beherakada izan zuen 2008. urtean aurreko urteko emaitzaren aldean.

ERRENTEN ADIERAZLEEN BILAKAERA

14. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2004	2005	2006	2007	2008
Soldatapekoen ordainketa	7,9	7,1	6,7	6,8	---
Urtean indarrean dagoen soldata igoera	3,9	4,5	4,9	4,2	5,0
Enplegua	2,8	2,2	2,2	2,8	1,1
Pentsioen kopurua (*)	1,1	1,9	3,4	1,6	1,6
Batez besteko pentsioa (*)	6,1	5,3	4,4	4,6	4,6
PFEZren diru bilketa	1,1	11,5	10,3	13,6	4,5
Banku arteko interes tasa (urte baterako euriborra)(**)	2,3	2,3	3,4	4,4	4,8
KPI	3,0	3,3	3,4	2,8	4,1

(*) Hilabeteko lehen eguneko datuen arabera kalkulaturako urteko batez besteak.

(**) Hilabeteko batez besteekin osaturako urteko batez besteak.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Lan Harremanen Kontseiluaren, INEren, Lan eta Gizarte Gaien Ministerioaren eta Espainiako Bankuaren datuetan oinarrituta.

2008ko urteko txostena

Familien gastuak nozitu zuen uzkurdura Espainiako Bankuak banku sistemak emandako kredituaz argitaratzen dituen datuetan ere islatu zen. Bankuek, aurrezki kutxek eta kreditu kooperatibek emandako kreditua %5,6 areagotu zen 2008. urtean, 2007. urtean lortutako %13,4 baino askoz ere gutxiago delarik. Azken urteetan familiek beren kontsumoa finantzatzeko zorpetzeko joera hartua zuten, baina portaera hori aldatu da eta zor gutxiago hasi dira hartzen. Beste aldetik, errenta erabilgarria handitu zenez eta gastua, ordea, murriztu, familien aurrezki tasa nabarmen areagotu zen.

EGINDAKO KONTSUMOAREN ADIERAZLEEN BILAKAERA

15. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2004	2005	2006	2007	2008
IPI kontsumo ondasunak. EAE	-1,0	0,6	1,6	0,5	-7,1
IPI kontsumo ondasunak. Estatua	-0,2	0,9	2,4	1,7	-4,7
Automobilen matrikulazioa	3,9	-4,4	-2,8	-0,1	-22,6
Barne merkataritzaren indizea (prezio finkoak)	2,5	0,4	5,7	3,4	-4,6
Txikizkako merkataritza (prezio finkoak)	4,0	1,6	1,9	1,3	-3,1

Iturria: Eustat, INE eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Administrazio publikoen kontsumoak familien kontsumoaren bizitasun motelagoa konpentsatu zuen eta %5,9 hazi, aurreko urteko tasa lau hamarrenetan gaituz. Hori horrela izanda, azken kontsumoan eginiko gastuaren hazkundera %2,0an kokatu zen, 1996. urtetik jaso den tasa txikiena baita.

Kapital eraketa gordina

Kapital eraketa gordinak ere nabarmen moteldu zuen bere hazkunde erritmoa aurreko urteko emaitzaren aldean, urteko batez bestean %1,4 jasota. Hala ere, apaltzeko joera urteko azken hiruhilekoan biziagotu zen. Ekoizteko inbertsio pribatuaren osagai guztiek jaso zituzten hazkunde tasa txikiagoak. Eraikuntzan eginiko inbertsioak 2007an hasitako moteltzeari jarraipena eman zion, higiezinaren aktiboen balio irabaziak gutxituko zirelakoan eta kredituaren murrizketaren ondorioz. Ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioak, berriz, asko

gutxitu zuen gehikuntza tasa bere atal guztietan, hala makinerian nola garraio materialean. Bilakaera hori eragin zuten alderdiak barne eta kanpo eskariaren ahultasuna, ekonomiaren etorkizunaz dagoen ezkortasuna eta bankuen finantzaziora heltzeko enpresariak dituzten zailtasunak dira.

Kapital eraketa gordinak erakutsi zuen moteltzeko joera 2008. urterako eskuragarri dauden hainbat adierazleren norabidean ere hauteman da. Ekipamendurako ondasunen barne ekoizpenak eta ondasun horien inportazioak beherakada garrantzitsuak jaso zituzten. Ibilgailuen matrikulazioak ere ahultasuneko zantzuak erakutsi zituen eta bere hazkunde tasak beherakada izugarria izan zuen, aldakuntza tasa negatibo handia jasota.

KAPITAL ERAKETA GORDINAREN ETA BERE ADIERAZLEEN BILAKAERA

16. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2004	2005	2006	2007	2008
Kapital eraketa gordina (bolumenaren indize kateatua)	7,5	6,1	5,9	5,5	1,4
IPI ekipamendurako ondasunak:	3,3	7,7	8,5	7,2	-2,5
- IPI garraio materiala	2,6	4,8	8,3	8,4	1,6
- IPI makineria	5,5	4,7	5,6	5,6	-5,7
Ekipamendurako ondasunen inportazioak	18,2	3,4	6,1	14,5	-0,8
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	14,9	12,2	-5,5	5,4	-41,2

Iturria: Eustat eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia.


Kanpo saldoa eta lehiakortasuna

Lau urtez jarraian ekonomiak eta munduko merkataritzak bizitasun aparta erakutsi ondoren, 2008. urtean bi aldagai horiek moteltzeko joera garrantzitsua nozitu zuten. Garatutako herrialdeetan eskariak izan zuen ahultasunak eta lan merkatuetako egoera zailak salerosketak areagotzeko testuinguru ezegokia sortu zuten. Beraz, nazioarteko merkataritza %3,7 baino ez zen hazi 2008. urtean, Munduko Bankuak argitaratu dituen datuen arabera, aurreko urtean lortutako hazkundearen erdia baino ez delarik.

2008ko urteko txostena

Ondasunen esportazioak
Urte arteko aldakuntza tasak

8. irudia



Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

Ekonomia aurreratuetan, konfiantzaren amiltzeak, ekonomiaren datu txarrek eta igurikimenen okertzeak barne eskariak astindu zituzten, inportazioen maila oso nabarmen gutxituz. Hain zuzen ere, Europak asko murriztu zituen bere salmentak, bereziki Alemaniaren eta Frantziaren esportazioak moteldu zirelako, 2003. urteko mailetara itzuliz. Baina zalantzarik gabe ekonomiaren abaguneak Japonia kaltetu zuen. Yenaren balio irabaziak eta merkataritzako bazkide nagusien ahultasunak herrialde hartako ekoizkinak atzerrian saltzea zailago egin zuten, halako tamainaz ezen Japonia, zazpi urte beranduago, berriro sartu baitzen atzeraldi ekonomiko batean.

Gainontzeko ekonomietan ere, nazioarteko merkataritzaren bat-bateko geldialdiak kalte handia eragin zuen. Txina, munduko bigarren herrialde esportatzailea baita, Alemaniarekin lehia lehenengoa izateko, gutxiago hazi zen, esportazioen moteltzearen ondorioz. Izan ere, 2008ko azaroan, Txinak hazkunde tasa negatiboa jaso zuen lehenengo aldiz 2001eko ekainetik. Orduko hartan, Txinako hilabeteko esportazioak zertxobait gutxitu ziren, enpresa teknologikoen burbuilak eztanda egin ondoren, AEBetako eskaria murriztu zelako. Txinak Munduko Merkataritza Antolakundeari (MMA) 2001. urtean atxiki zionetik, bere salmenten batez besteko hazkundera %25etik gora egon zen, orain arte.

2009ko lehen hilabeteetan, nazioarteko merkataritzaren galga areagotu da eta ez da hobekuntza handirik espero datozen hilabeteetarako. Zehazkiago azalduta, MMA erakundeak aurreikusi du salgaien munduko merkataritza %9 jaitsiko dela 2009an, Munduko Bigarren Gerra amaitu zenetik ez da horrelakorik inoiz gertatu. Are gehiago, merkataritzaren beherakada BPG nominalarena baino garrantzitsuagoa izango da, globalizatzeko prozesuan atzerakada bat gertatu dela agerian utziz.

ONDASUNEN MERKATARITZA ATZERRIAREKIN 17. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro

	2003	2004	2005	2006	2007	2008(*)	Milioi € 2008 (*)
Esportazioak							
Guztira	1,3	14,6	5,8	16,4	14,6	6,7	19.888,4
Ez-energetikoak	0,1	13,5	5,4	14,1	14,7	5,5	18.102,6
Energetikoak							
Inportazioak	3,2	19,8	15,6	20,2	8,2	7,1	20.102,3
Guztira	2,6	15,6	4,4	14,6	14,1	-0,8	13.002,1
Ez-energetikoak							
Energetikoak	1.292,1	935,6	-240,0	-830,7	170,1	-213,9	-213,9
Saldoa	2.890,0	3.106,6	3.375,9	3.810,3	4.452,4	5.100,5	5.100,5
Guztira (milioi €)	1,3	14,6	5,8	16,4	14,6	6,7	19.888,4
Ez-energetikoak (milioi €)	0,1	13,5	5,4	14,1	14,7	5,5	18.102,6


(*) Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

2008ko urteko txostena

EAEko ekonomia egoera onean eta hazkunde handiak jasoz zegoen, baina ezin izan zuen munduko atzeraldia saihestu, eta krisiaren ondorioak beranduago agertu baziren ere, esportazioen eta inportazioen bilakaera kaltetuta atera zen. Hain zuzen ere, 2008. urtean atzerrira bideratutako esportazio guztiek, termino nominaletan, 19.888,4 milioi euroko balioa izan zuten, %6,7ko gorakada delarik. Hala ere, 2002-2008 epealdian, batez beste, esportazioek lortu zuten hazkundea %9,0 izan zen. Beraz, 2008ko emaitza batez beste hura baino beherago kokatu zen. Inportazioek, berriz, esportazioen antzeko joera erakutsi zuten eta %7,1 baino ez ziren areagotu. Hazkunde tasa txikiagoa izan zen arren, inportazioen balioak 20.100 milioi euroak gainditu zituen eta 214 milioi euroko defizita utzi zuen atzerriarekiko merkataritzako saldoan.

Energiaz bestelako merkataritzak ere gehikuntza tasa apalagoak erakutsi zituen. Bi multzoetan bat-bateko jaitsierak jaso ziren, inportazioen kasuan tasa negatiboetara iristera luzatu baitziren, 1996. urtetik eskuratu den emaitzarik txarraena lortuz. Harrigarria bada ere, eta energiakoak ez diren esportazioen eta inportazioen hazkundeak oso nabarmen gutxitu zirela kontuan hartuta, energiaren bestelako saldoa serie historiko osoko handiena izan zen, 5.100 milioi eurotik gorako superabita lortuta.



Iturria: Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioa.

2008ko erdialderako, begi bistakoa zen ekonomiaren atzeraldiaren ondorioz ondorengo hilabeteetan faktura asko ez zirela ordainduko eta egindako eskaerak maiz bertan behera utziko zirela. Araba, Bizkai eta Gipuzkoako industriaren eskari zorroaren bilakaerak eta industria giroaren indizeak garbi adierazten zuten etorkizunerako aurreikuspenek oso okerrera egin zutela. 2007ko ezaugarriak baikortasuna eta aurreikuspen positiboak izan baziren, 2008. urtean igurikimenak gero eta ezkorragoak izan ziren eta 2009. urtea aurrera joan den heinean, ekonomiaren bilakaera txarrak eta nazioarteko merkataritzaren amiltzeak uste ezkor horiek egiaztatu dituzte.

Esportazioak arantzel sekzioka aztertzen badira, ekoizkin talde nagusi ia guztiek nabarmen gutxitu zuten bere tasa. Salbuespen bakarra energiaren atala izan zen, prezioek 2008ko lehen erdian izan zuten gorakada biziak lagunduta. 2001. urtetik ez zen horrelako uzkurdura orokorrik gauzatu. Urte hartan, *puntucom* deitutako enpresen krisiak eta AEBetan irailaren 11n gertatu ziren atentatuek merkatua amildu zuten. Atal guztien artean, azpimarratzekoa da garraio materialak izan zuen beherakada handia, bi urtez jarraian bi zenbakiko hazkunde tasak lortu ondoren, %-5,4ko aldakuntza tasa jaso baitzuen. Beherakada horrek, neurri handi batean, ekipamendurako ondasunen bilakaera baldintzatu zuen. Halaber, esanguratsua da plastikoak eta kautxua biltzen dituen atalak erakutsi zuen bilakaera, azken bost urteetan goranzko joera egonkorra izan baitzuen eta esportazio guztietatik %8,0aren ingurua bereganatu baitzuen. Metal arruntak eta beren manufakturak, ordea, hobeto moldatu ziren ekonomia abagune zail horretan eta talde horrek izan ohi dituen hazkunde tasei eutsi zien.


EAEko barne eskariaren ahultasunak inportazioen bilakaera bortizki okertu zuen eta ia atal guztietan beherakadak jaso ziren. Automobilen erosketak izan zuen bat-bateko beherakadak ekipamendurako ondasunen bilakaera kaltetu zuen, lehenengo aldiz bost urteko epean hazkunde tasa negatiboa jaso zutelako. Metal arruntan taldea ere %1,0 baino gutxiago hazi zen, aurreko urteetan gehikuntza tasa garrantzitsuak jaso bazituen ere. Izan ere, gorakada lortu zuten talde bakarrak nekazaritzako ekoizkinak, energia produktuak eta kimikako salgaiak izan ziren. Hala ere, hiru talde horiek inportazio guztien %37 baino ez dute biltzen eta ez zen nahiko izan gainontzeko taldeen jaitsierak konpentsatzeko.

2008ko urteko txostena


Ondasunen esportazioak eta inportazioak Urte arteko aldakuntza tasak

10. irudia


Ekoizkin energetikoen esportazioak




Ekoizkin energetikoen inportazioak




Ekipamendurako ondasunen esportazioak




Ekipamendurako ondasunen inportazioak



Metal arrunten eta manufakturen esportazioak



Metal arrunten eta manufakturen inportazioak



Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

ENERGIAZ BESTELAKO MERKATARITZA HARREMANAK EAE-REN ETA ATZERRIAREN ARTEAN

18. TAULA

	Urte arteko aldakuntza tasak						Miloi €
	2003	2004	2005	2006	2007	2008 (*)	2008 (*)
Esportazioak							
ELGE	1,6	11,8	5,6	14,6	10,2	3,1	14.281,8
Europako kide berriak	3,7	10,4	22,4	26,3	28,7	5,5	924,7
Europar Batasuna 27	2,5	10,9	5,6	15,8	11,0	3,2	12.640,9
Alemania	2,2	17,6	-0,8	23,5	15,6	8,1	3.060,3
Frantzia	1,0	11,6	3,7	10,4	6,4	6,1	3.298,7
Erresuma Batua	-0,6	20,1	0,9	3,4	9,6	-14,6	1.055,2
Italia	3,8	0,0	23,5	24,8	-1,5	-1,6	1.323,1
Errusia	1,8	84,4	-0,3	54,9	44,2	53,5	207,3
Txina	67,4	28,1	17,7	28,1	20,6	38,1	391,9
Inportazioak							
ELGE	0,7	10,5	2,2	11,4	13,6	-2,3	9.593,6
Europako kide berriak	18,2	10,7	24,8	20,7	14,8	7,6	413,3
Europar Batasuna 27	0,7	11,6	2,7	10,9	12,0	-2,8	8.558,3
Alemania	-3,9	18,6	2,2	3,3	35,9	-0,8	2.420,6
Frantzia	-2,7	12,7	-4,4	14,9	8,6	1,7	1.901,6
Erresuma Batua	4,1	-0,6	-1,8	2,6	-14,3	-22,0	633,0
Italia	-0,7	13,8	6,0	9,6	13,1	-6,8	1.198,3
Errusia	20,6	103,1	-3,4	17,5	6,9	4,7	485,3
Txina	17,1	24,6	33,9	38,1	45,7	-2,4	1.112,0

(*) Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Energiakoak ez diren esportazioen helburuari dagokionez, nolabaiteko aldaketa hauteman zen salmentetan. Eremuka aztertuta guztietan gutxiago saldu zen arren, beherakada handiagoa jaso zen tradiziozko merkatuetan eta nolabaiteko hobekuntza gainontzeko merkatuetan eginiko salmentetan. Frantziara eta Alemaniara zuzendutako esportazioen moteltzeak eta britainiar zein italiar merkatuetan gertatutako jaitsierek Europar Batasunean 2003. urtetik izan den moteltzerik biziena eragin zuten. Aitzitik, AEBetara eta Japoniara bidalitako esportazioek guztiz ezohikoak diren hazkunde tasak lortu zituzten, bi herrialde horietan eskuratzen ziren emaitza apaletatik aldentuta. Halaber, Errusiara, Txinara eta Brasilera esportatutako kopuruak

2008ko urteko txostena

azpimarratu behar dira, herrialde horietan lortutako hazkunde tasak krisia hasi baino lehen lortzen zirenak bezalakoak, edo handiagoak, izan zirelako.

Hasieran uste bazen salmentak tradiziozko bazkideetatik (Alemania, Frantzia edo Erresuma Batutik) garapen bidean dauden herrialdeetara mugitu zirela, 2009ko lehen hiruhilabeteko datuek erakutsi dute beherakada orokorra dela herrialde guztietan. Beraz, 2008an Europako merkatuak izan zuen moteltze biziagoa ekonomia eta finantza krisiak gehiago kaltetu izanaren ondorio zuzena izan zen.

Energiaz bestelako inportazioen bilakaera oso antzekoa izan zen, baina kasu horretan beherakadak eta aldakuntzak askoz ere garrantzitsuagoak izan ziren. Izan ere, lehenengo aldia da, hamabost urteko epean, energiakoak ez diren inportazioek horrelako jaitsiera orokorra eta bizia nozitzen dutela, EAEko tradiziozko bazkideak horren gogor astintzen dituen. Hain zuzen ere, Europar Batasuneko partaideak diren herrialdeetatik inportatutakoa %-2,8 jaitsi zen, Alemanian, Italian eta, bereziki, Erresuma Batuan, non inportazioak bigarren urtez jarraian gutxitu baitziren, erositakoa murriztu zelako. Aitzitik, ELGEtik kanpoko herrialdeetan erosi zenak hazkunde positiboa jaso zuen.


2.3 Lan merkatua

Ekonomia jardueraren narriadurak oso nabarmen kaltetu zuen lan merkatua 2008. urtean. Beherakada are biziagoa izan zen urteko azken hiruhilekoan eta 2009ko lehen hilabeteetan, landunen bilakaerak egiaztatzen duenez, urte askoan joera positiboa lortu ondoren hazkunde tasa negatiboak jaso zituelako. Enplegu galeraren ondorioz, langabezia tasak gora egin zuen eta aurreikuspenek iradokitzen dute gehikuntza hori iraunkorra izango dela eta Eurogunekoa baino biziagoa izango dela.

Hainbat ekitalditan enplegua aztertzen duten estatistika iturri nagusiek mezu kontrajarriak argitaratu ondoren, 2008. urtean iturri horiek guztiek beheranzko joera bera erakutsi zuten, ekonomiak bizi duen une zaila egiaztatzeko balio zuena. Are gehiago analisisia urte amaierako eta 2009ko hasierako datuetan fokatzen bada, hiruhileko horietan beherakada garrantzitsuak jaso zirelako. Hala eta guztiz ere, balioak urteko batez besteak alderatzen badira, hala kontu ekonomikoek nola Gizarte Segurantzako afiliazioak %1,1eko hazkunde oraindik nabarmena

aurkeztu zuten. Aitzitik, BJA eta BAI inkestren emaitzak lauagoak izan ziren, hurrenez hurren, %0,3 eta %0,5 hazita.

Enpleguen bilakaera EAEn **11. irudia**
Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eustat, Gizarte Segurantza eta INE.

Atzerritarren afiliazioari dagokionez, hauek ere, afiliazio osoak bezala, moteltze bizkor bat hauteman zuten emaitzetan, aurreko urteko gorakadaren ondoren. Are gehiago, 2009ko lehen


2008ko urteko txostena

hilabeteetan atzerritar afiliatuen kopurua gutxitzen hasi da, gero eta bizkorrago hilabeteak aurrera zihoazen heinean. Atzerriko afiliatuen kopurua oraindik oso txikia da Euskadin dauden afiliatu guztien artean eta horrek agerian uzten du immigrazioaren pisua ez dela Estatuko gainontzeko erkidegoetan bezain garrantzitsua.


Atzerritar afiliatuen bilakaera EAEn

12. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak



Afiliatu guztiekiko pisua ehunekotan



Iturria: Gizarte Segurantza.

Enpleguaren analisia kontu ekonomikoen datuekin egiten bada, azpimarratu behar den ezaugarria lanpostuen kopuruaren moteltzea da, 2009ko lehen hiruhilekoan dagoeneko tasa negatibotan baitzegoen. Moteltzeko joera hori 2007an eta eraikuntzan hasi zen, handik gainontzeko arloetara 2008an zehar igarotzeko. Eraikuntzak etxebizitzetan eginiko inbertsioaren murrizketa garbia eta finantzaziorako baldintzen gogortzea hauteman zituen. Beste aldetik, industriak, 2007ko susperraldiaren ondoren, enplegua galdu zuen hiruhilekoz hiruhileko 2008an. Azkenik, zerbitzuak ahalegindu ziren gainontzeko arloen bilakaera negatiboa konpentsatzen.

Kontuan hartuta balio erantsiaren doikuntza enpleguarena baino handiagoa izan zela, lan faktorearen itxurazko ekoizkortasunak gutxitzeko joerari atxiki zion eta 2009ko lehen hiruhilekoan hazkunde tasa hutsalean kokatu zen. Eraikuntzak ekoizkortasun osoaren galera

leundu zuen aurreko urtean baino zazpi hamarren gehiago (%3,5 2007an eta %4,2 2008) lortu zituelako, obra publikoaren gorakadari esker, eremu horretan etxegintzan baino lan esku gutxiago erabiltzen delako.

ENPLEGUA ETA EKOIZKORTASUN IRABAZIAK EKONOMIAREN ARLOETAN 19. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Enplegua guztira:	2,5	2,8	2,2	2,2	2,8	1,1
Ekoizkortasuna guztira:	0,6	0,9	1,8	2,1	1,3	0,9
-Enplegua lehen arloan	-2,9	1,5	-5,1	-3,5	-4,0	1,7
-Ekoizkortasuna lehen arloan	-3,3	29,4	-9,2	-0,9	14,4	-1,9
- Enplegua industrian	1,2	0,9	-0,6	0,5	3,3	-0,4
- Ekoizkortasuna industrian	0,0	2,0	5,5	3,7	0,7	0,6
- Enplegua eraikuntzan	6,2	4,9	3,7	3,4	1,1	-4,1
- Ekoizkortasuna eraikuntzan	-1,2	-0,5	1,0	0,8	3,5	4,2
- Enplegua zerbitzuetan	2,8	3,4	3,5	3,1	3,2	2,4
- Ekoizkortasuna zerbitzuetan	0,5	-0,1	0,0	1,4	1,0	0,9

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustaten datuetan oinarrituta.

Landunen bilakaera BJA inkestaren datuetan aztertuta, enpleguaren sorrera emeki-emeki gutxitu zen 2007ko emaitzen aldean eta 3.000 lanpostu gutxiago sortu ziren azken urtean, 2008ko azken hiruhilekoan eta 2009ko lehenengoan tasa negatibotan kokatu arte. Bilakaera negatibo horretan, gizonak izan ziren kaltetuenak (%-1,4 gutxitu zen bere enplegua 2008an), eraikuntzaren jaitsiera nabarmenaren ondorioz, arlo horretan diharduen biztanleriaren zati handiena gizonak direlako. Aitzitik, emakume landunen kopurua %2,5 areagotu zen. 16 eta 24 urte bitarteko gazteek enplegua galdu zuten berriro, ikasteko urteak luzatzen dutelako eta lan merkatuan sartzea zailagoa delako. Horiek horrela izanda, Lisboako estrategiak enplegu tasetarako ezarri zituen helburuak betetzea oso zaila da orain. Hain zuzen ere, enplegu tasa orokorra %67,6an kokatu zen, %70eko helburutik urrun. Emakumeen enplegu tasak, ordea, oso bilakaera ona lortu zuen eta aurreko urteko %57,4tik %59,0ra igo zen. Aitzitik, helduenen enplegu tasarako ezarri zen helburua betetzea guztiz baztertuta geratu da, talde horren balioak %41 eta %42 bitartean mugitu gabe baitaude 2005. urtetik.


2008ko urteko txostena

Azken hilabeteetako enplegu galerak aldi baterako kontratua zuten soldatapekoen beherakada (%-2,1) eragin zuen, BJA inkestak kolektibo horretarako eskaini dituen datuen arabera. Izan ere, aldi baterako lanpostuak izan ziren desagertu ziren lehenak, kontratu mugagabea zuten langileen kopuruak oraindik %2,3ko tasa positibotan jarraitzen zuen bitartean. Hala ere, talde horretan ere igarri zen moteltzeko joera etengabea eta 2008ko azken hiruhilekoan aldakuntza tasa negatibotan kokatu zen. Horiek horrela izanda, aldibaterakotasun tasak behera egin zuen seigarren urtez jarraian eta inkesta horrek datuak eskaintzen dituenetik balio apalena (%20,4) jaso zuen, nahiz eta Europako emaitzekin alderatzen badira, EAEkoak oraindik oso altuak diren. Aldibaterakotasun tasaren beherakadak gehiago zor dio aldi baterako kontratua duten langileak irazitako erraztasunari azken urteetan martxan jarri diren lan merkatuaren erreformei baino.


Aldibaterakotasun tasa soldatapekoen artean
Ehunekoak

13. Irudia

EAE



Europar Batasuna



Iturria: Eustat eta Eurostat.

Beste aldetik, Lan eta Immigrazio Ministerioak argitaratzen duen Lan Koiunturaren Inkestaren datuek nolabaiteko gutxitzea erakusten dute lan egindako orduen kopuruan, gaur eguneko abagune ekonomikoarekin bat datorrena. Zehazkiago adierazita, langile bakoitzak egindako lanaldia, lanaldi osoko eta laburreko landunek eginiko orduen batez beste haztatu gisa kalkulaturik, gero eta txikiagoa da 2006. urtetik aurrera, eta joera hori 2009ko hasieran bere horretan mantendu da. Lanaldi horren oinarritzko osagaiak aztertzen badira, eta aparteko

orduekin hasita, aipatu behar da azken urtean hauek areagotu zirela, baina 2008ko azken hiruhilekoan eta 2009ko lehenengoan joera aldatzekotan dagoela oso garbi gelditu da. Azkenik, beste osagaiaren bilakaera, hots, langile bakoitzak huts egin dituen orduena, azpimarratu behar da, 2008an zertxobait areagotu zirelako, baina 2009ko hasieran oso bizkor igo zirelako, zenbait arrazoi direla medio. Beste zio askoren artean, enplegua erregulatzeko dosierrak aipatu behar dira.

LANALDIAREN BILAKAERA

20. TAULA

Aste batean lan egindako orduak

	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Batez besteko lanaldia langile bakoitzeko	1.576,1	1.581,5	1.581,9	1.559,7	1.538,2	1.534,0
Aparteko orduak (*)	2.813,9	3.351,6	2.774,8	2.618,7	2.938,0	3.138,3
Huts egindako orduak langile bakoitzeko	278,1	277,3	273,9	285,2	276,7	277,3
-Oporrak eta jaiegunak	208,0	203,9	204,0	211,4	197,2	203,2
-Bestelako arrazoiak	70,3	73,4	70,0	74,0	79,4	74,0

(*) Aparteko ordu guztiak mila ordutan neurtuta.


Iturria: Lan eta Immigrazio Ministerioa.

BJA inkestak parte hartzeari buruz argitaratzen dituen datuek adierazten dute ekonomia azken hiruhilabeteetan ahuldu den arren langileen eskaintzak berriro egin zuela gora, aurreko urteko %0,3tik 2008ko %0,8ra igarota, emakumeen parte hartzeak (%3,2) bultzatuta. Horren ondorioz, partaidetza tasa orokorra lau hamarretan igo zen, 2007ko %54,6tik 2008ko %55,0ra. Analisia adin taldeka egiten denean, deigarria da gazteen bilakaera, aurreko urteko emaitzen aldean talde honen partaidetza %1,4 areagotu zelako, hainbat urtez gutxitu ondoren. Hala ere, emaitza hori ezohikoa eta jarraipenik gabea izan daiteke, argitaratu diren azken datuek beharakada esanguratsuak bildu dituztelako, belaunaldien arteko erreleboa gaur egun nekez lortuko dela agerian utziz.

Langabeen bilakaerari dagokionez, lau urtez jarraian lanik gabe zeuden pertsonen kopuruak behera egin ondoren, 2008. urtean gorakada nabarmena izan zuen, enpleguan gertatu zen doikuntzaren ondorioz, langabezia tasa goraraziz. 2009. urtea hasi arte gehikuntzak txikiak izan ziren arren, datozen hilabeteetan areagotuko direla eta EAEko langabezia tasak laster Europako batez bestea gaindituko duela espero da. Langabezia tasa horien artean, azpimarratu

2008ko urteko txostena

behar da gazteen tasa, oraindik kaltetuena baita. Hala ere, langabeen kopurua gehien hazten den adin taldea 25 eta 44 urte bitartekoa da berriro.



Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.
Iturria: Eustat eta INE.

Aipatu den langabeen igoera are handiagoa izan daiteke datozen hilabeteetan, administrazioari aurkeztu dizkieten enplegua erregulatzeko dossierren bilakaeraren arabera. Dossierren kopurua nabarmen areagotu zen 2008. urtean eta are gehiago 2009ko lehen hilabeteetan. Zehazkiago adierazita, 13.000 langile inguru dossier baten eraginpean zeuden Euskadin 2008. urtean, aurreko urtean baino 7.979 gehiago. Zorionez, beraietako gehienak behin-behineko etendurakoak ziren. Orobat, 2009ko lehen hilabeteetan 33.700 langiletik gora daude behin-behineko etendurako dossier baten eraginpean eta arriskua da dossier hauek guztiek kontratatu amaitzeko dossier bihurtzen badira. Oraingoz, azken hauek aurreko urteetako mailan baino zertxobait gorago bakarrik daude.

Beste aldetik, kontratu mugagabeei dagokienez, 2007ko emaitzen aldean nabarmen gutxitu ziren arren (%-6,0), ia ez zuten pisurik galdu kontratu guztien multzoan, zeren eta hamarren bakar bat galdu zutelako, %5,3tik %5,2ra igarota. Mugagabe bihurtutako aldi baterako kontratuen bilakaeran leuntze garbia hauteman zen eta 2007ko %-29,2tik 2008ko %-9,3ra

2008ko urteko txostena

murriztu zen horien jaitsiera. Kontratu mota hori berriro jaitsi zen 2009ko lehen hilabeteetan, baina ez da ahaztu behar kontratu guztien artean oso gutxi direla eta guztien %3,7 baino ez dutela berenganatzen.

ENPLEGUA ERREGULATZEKO EUSKADIN BAIMENDU DIREN DOSIERRAK

21. TAULA

	2004	2005	2006	2007	2008	2009(*)
Dosierren kopurua	292	261	328	173	282	496
Eragindako langileak	12035	5614	6158	3338	4815	12794
<i>Dosier mota</i>						
- Lanaldia murriztekoa	155	25	41	4	17	108
- Behin-behineko etetea	8624	3478	4714	1704	3856	11216
- Kontratua amaitzekoa	3256	2111	1403	1630	942	1470

(*) Maiatza arte jasotako dosierrak.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

Azkenik, 2008. urtean, eta lan merkatuko beste adierazle batzuen bilakaerarekin bat egiten, INEMek argitaratzen duen kontratazioaren estatistikak balio negatiboak (%-5,2) izan zituen Euskadin, lehenengo aldiz 2002. urtetik. Kontratu mota guztiak, hala mugagabeak nola aldi baterakoak, gutxiago erabili ziren eta beherakadaren erantzuleak izan ziren, salbuespen bakarra gainontzekoak izeneko taldean biltzen direnak direlarik. Azpimarratzekoa da obra edo zerbitzu jakin baterako aldi baterako kontratuen bilakaera (%-11,4) eta abagunekoena (%-9,4), kontratazioan duten pisu handiarengatik.

ERREGISTRATUTAKO LAN KONTRATUEN BILAKAERA

22. TAULA

	Kontratuak		Urte arteko aldakuntza (%)				
	2008	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Guztira	793.170	5,2	6,4	1,9	3,1	4,1	-5,2
Lanaldi osoko mugagabeak	27.170	-5,4	-1,0	3,6	9,4	31,3	-8,7
Obra edo zerbitzukoak	171.954	1,6	4,2	-3,6	-0,1	0,7	-11,4
Abagunekoak	219.123	5,3	5,9	0,6	3,2	5,1	-9,4
Abagunekoak	247.844	6,9	9,5	8,4	2,9	3,3	-1,3
Prestakuntzakoak (*)	7756	-13,2	6,4	-3,9	0,7	-4,2	-13,0
Gainontzekoak	119.323	14,8	7,1	2,2	8,8	4,8	7,9

(*)Prestakuntzako kontratuetan, lanaldi laburreko praktika kontratuak sartzen dira.

Iturria: INEM.

2.4 Prezioak, kostuak eta soldatak

2008. urtean, kanpoko jatorria duten hainbat faktorek, hala nola petrolioaren salneurriak, prezioen bilakaera neurtzen duten adierazleak baldintzatu zuten. Petrolio oso nabarmen garestitu zenez, prezioen adierazle nagusiek gorantz egin zuten. Hala eta guztiz ere, eragin hori desagertu ondoren, prezioek moteltzeko joera erakutsi zuten eta balio negatiboetara iritsi ziren 2009. urtean.

Deflatoreen bilakaerari dagokionez, baliorik gorena berriro eraikuntza izan bazen ere, aurreko urtearen aldean gehien bizkortu zena industriarena izan zen. Sektore hau oso zabalik dago kanpo lehiari, baina lehen hiruhilekoetan lehengaien nazioarteko merkatuetan mamitu ziren tentsio inflaziogileek eragin handia izan zuten industriaren prezioetan. Hala ere, ondorengo hilabeteetan goranzko bilakaera hori nabarmen moteldu da.

DEFLATOREEN BILAKAERA

23. TAULA

	2003	2004	2005	2006	2007	2008
BPGren deflatoea	3,3	4,4	3,4	3,3	2,5	3,0
Lehen arloko deflatoea	3,6	-21,1	10,0	2,7	-16,2	-5,1
Industriaren deflatoea	1,8	6,1	2,6	1,5	3,1	4,2
Eraikuntzaren deflatoea	11,4	5,3	4,5	4,1	3,9	4,3
Zerbitzuen deflatoea	3,0	3,4	3,0	3,6	2,8	3,5

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta

Prezioak

2008. urteko inflazio tasa azken urteetako altuena izan zen, baina azpimarratu behar da uztailetik aurrera gauzatu zen joera aldaketa. Izan ere, uztailean kontsumoko prezioen indizea (KPI) %5,2an kokatu zen, petrolio gordinaren eta beste lehengai batzuen garestitze biziaren ondorioz. Hala ere, gorakada horiek egonkortu zirenean eta eskaria ahultzen ari zen heinean, indizearen gehikuntza erritmoa oso bizkor apaldu zen, 2009ko hilabete batzuetan aldakuntza tasa negatiboak jaso arte.

Horiek horrela izanda, petrolio gordinaren salneurria izan zen inflazioaren bi norabide horiek baldintzatu zuena. Hain zuzen ere, lehengai horren upelaren prezioa 145 dolarren gainetik kokatu zen uztailean, baina 40 dolarretara jaitsi zen abenduan. 2009ko lehen hilabeteetan, berriro garestitu zen. Gorabehera garrantzitsu horiek, neurri batean, euroaren eta dolarraren arteko truke tasak leundu zituen. Beste aldetik, munduko ekonomiaren bilakaerak baldintzatu zuen petrolioaren salneurria, aurreikuspenek lehengai horren eskaria handituko zela iragartzen zutenean, prezioa garestitu zen, baina ekonomiaren ahultasuna begi bistan geratzen zen heinean, petrolioaren eskaria jaitsiko zela pentsatu zen eta prezioa merkatu.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

24. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2004	2005	2006	2007	2008	Ekarpena
Inflazioa guztira (%100)	3,0	3,3	3,4	2,8	4,1	4,1
Azpiko inflazioa (%83,3)	2,7	2,7	2,9	2,8	3,2	2,7
KPI Landutako elikagaiak (%14,3)	3,7	3,5	3,6	4,0	6,6	0,9
KPI Industriako ondasunak (%29,3)	0,5	0,7	1,4	0,7	0,6	0,2
KPI Zerbitzuak (%39,7)	4,0	3,9	3,7	3,9	3,9	1,6
Hondarreko inflazioa (%16,7)	4,6	6,3	6,1	3,0	8,5	1,4
KPI Landugabeko elikagaiak (%7,9)	5,1	4,3	4,3	4,2	5,0	0,4
KPI Energia (%8,8)	4,2	8,4	7,9	1,9	11,6	1,0


Iturria: INE.

Prezioen analisia talde berezietan fokatzen bada, nabarmendu behar da janari landuen eta landu gabekoek prezioek izan zuten gehikuntza garrantzitsua, 2008ko lehen hilabeteetan janaritarako lehengaiak izan zuten gorakadaren ondorioz. Urteko azken hilabeteetan, ordea, lehengai hauen prezioa merkatu zen eta horrekin batera elikagaiena ere. Beste aldetik, zerbitzuetako prezioek aurreko urteko tasa bera (%3,9) jaso zuten urteko batez bestean, baina kontsumoaren jaitsieraren ondorioz, beren hazkunde erritmoa moteldu zuten 2009ko lehen hilabeteetan. Azkenik, energia ekoizkinik gabeko industria ondasunek beheranzko joerari atxiki zioten 2008. urtean eta are gehiago gutxitu zuten prezioen igoera 2009ko hasieran, urte arteko aldakuntza tasa negatiboak jaso arte, bereziki eskariaren jaitsieraren ondorioz.


2008ko urteko txostena

KPIren bilakaera 15. irudia Urte arteko aldakuntza tasak

EAE




Europar Batasuna




Iturria: INE eta Eurostat.

KPIren talde berezien bilakaera 16. irudia Urte arteko aldakuntza tasak

Industria ondasunak




Zerbitzuak



Iturria: INE.

Azpiko inflazioari dagokionez, aurreko urtean indize orokorraren tasa bera jaso ondoren, hots %2,8ko urte arteko igoera, 2008. urtean bi adierazleen artean tarte bat zabaldu zen (%3,2 azpikoa eta %4,1 orokorra), 2009ko lehen hilabeteetan areagotu zena. Energiaren salneurriak beherantz doitu ziren neurrian, azpikoaren tasa orokorraren gaintetik kokatu zen, lehenengo aldiz 2002. urtetik. Hala ere, azpimarratu behar da bai azpiko inflazioaren bilakaerak bai indize orokorrarenak beherantz egin zutela, eta 2009ko lehenengo datuetan Eurogunearen azpiko hazkunde tasak jaso zituztela.



Iturria: INE eta Eustat.


Urteko batez bestean neurtuta, Eurogunearekiko inflazio tarte zertxobait zabaldu zen 2008. urtean, aurreko urteko zazpi hamarretatik zortzi hamarretara, baina 2009ko lehen hilabeteetan prezioek izan zuten moteltze biziaren ondorioz, bi lurraldeen arteko inflazio aldea negatiboa izan zen lehenengo aldiz. Beste behin, energia ekoizkinek lagundu zuten joera aldaketa hori gauzatzen, alde batetik, Euskadin zerga gutxiago nozitzen dutelako eta, horren ondorioz, prezioaren edozein aldaketak eragin handiagoa duelako. Beste aldetik, EAEko ekonomiak mendekotasun handiagoa du produktu horiekiko eta horrek ere eragin handiak ditu prezio orokorretan.

2008ko urteko txostena

Horiek horrela izanda, 2008. urtean indize orokorra osatzen duten talde guztiek, salbuespen bakarra medikuntza izan zelarik, Eurogunean jasotakoak baino hazkunde tasa altuagoak izan ondoren, 2009ko lehen hilabeteak igarotzen ziren neurrian, egoera hori aldatuz joan zen, batez ere garraioaren taldean, baina baita petrolioarekin harreman estua duten besteetan ere. Aitzitik, igoerak moteltzeari uko egin zutenen artean irakaskuntza nabarmendu zen, inflazio tartea asko zabaldu baitzen, Alemaniak 2007. urtean unibertsitateko tasak gehitu izanaren eragina desagertu eta gero.

EA Eren eta Eurogunearen arteko inflazio tartea

18. irudia



Iturria: INE eta Eurostat.

Industriaren prezioen bilakaera, jatorrian eta IPRIk neurtuta, erosketaren salneurriaren bazelakoa izan zen. Hain zuzen ere, aurreko urteko aldean oso nabarmen areagotu ondoren (%6,6, aurreko urteko %4,0aren aldean) eta gehienezko balioa (%9,6) uztailean jaso eta gero, norabide aldaketa biziari ekin zioten eta hazkunde tasak murriztuz joan ziren, 2009. urtean aldakuntza tasa negatiboak lortu arte. Berrito aipatu behar da energiaren bilakaera, 2008ko

2008ko urteko txostena

udako hilabeteetan tasa gorenak jaso ondoren, balio negatiboetara itzuli zelako. Horrek ahalbidetu zuen EAEko indizea Europakora hurbiltzea eta 2009an azpitik geratzea.

EAE-KO KONTSUMO PREZIOEN INDIZEA

25. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Indize orokorra	2,8	3,0	3,3	3,4	2,8	4,1
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	4,1	4,3	3,6	4,1	3,8	6,3
Edari alkoholodunak eta tabakoa	3,0	3,7	4,8	2,0	6,6	4,0
Jantziak eta oinetakoak	3,0	0,7	0,7	1,1	1,4	0,7
Etxebizitza	2,9	4,2	5,0	6,3	3,6	6,4
Etxeko hornidura	1,7	2,2	2,2	3,0	3,5	3,0
Medikuntza	1,8	0,7	1,0	1,9	-0,5	-0,1
Garraioa	2,1	4,1	5,6	4,3	2,3	5,7
Komunikazioak	-2,6	-1,1	-1,6	-1,3	0,2	0,0
Aisia eta kultura	0,0	-0,2	-0,3	0,4	-0,9	0,3
Irakaskuntza	4,7	4,4	4,2	4,5	4,5	4,7
Hotelak, kafeak eta jatetxeak	3,6	4,0	4,4	3,9	4,6	4,6
Besteak	3,1	2,6	3,1	3,0	3,2	3,4

Iturria: INE.

EAE-KO INDUSTRIAKO PREZIOEN INDIZEA


26. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak


	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Indize orokorra	1,3	4,3	5,2	5,0	4,0	6,6
- Kontsumoko ondasunak	1,5	1,9	1,7	2,9	4,1	4,4
- Kontsumo iraunkorrak	0,0	0,9	2,2	0,6	1,4	3,1
- Kontsumo iragankorrak	2,4	2,4	1,5	3,8	5,3	5,0
- Ekipamendu ondasunak	1,8	1,0	1,8	0,9	3,9	3,0
- Bitarteko ondasunak	1,2	6,9	5,2	6,2	6,0	4,2
- Energia	0,1	5,5	17,0	8,9	-1,4	20,0

Iturria: Eustat.

EAE



Europar Batasuna



Iturria: Eustat eta Eurostat.

Kostuak eta soldatak

Soldata kostuak hazkunde tasa handiak jaso zituzten berriro, lan merkatuaren baldintzak nabarmen okertu ziren arren. Negoziazio kolektiboan dauden indexatze mekanismoek azaltzen dute, neurri handi batean, portaera hori. Izan ere, kostu horiek bizkortze garrantzitsua izan zuten, kontuan hartuta aurreko urtean onartu ziren soldata igoera guztiak, oraindik lan merkatuaren egoera ona zenean eta langabezia tasa inoizko mailarik apalenean zegoenean. Soldata igoera altuek eta lan faktorearen itxurazko ekoizkortasun apalagoak, bereziki industriaren arloan, banakako lan kostuak aurreko urteetan baino askoz ere gehiago hazi zitezela eragin zuten.

Lan hitzarmenetan 2008. urterako adostu ziren soldata igoerak (%5,0) azken urteetako handienak izan ziren eta horrek agerian uzten ditu soldatak negoziatzeko sisteman dauden zurruntasun handiak eta ekonomiaren abagunea bat-batean aldatzen denean egoera berriari egokitzeko dauden zailtasunak. Izan ere, soldatek 2007ko amaieran inflazioaren bilakaerari egin zioten doikuntzak, salbagueardiako klausulen aktibatzearengatik, lan kostuak gorarazi zituzten. Hala ere, alderantziz gertatu denean, inflazioak behera egin duenean eta lan

merkatuak okerrera egin duenean, azken hilabeteetan gertatu den bezala, 2008an sinatutako lan hitzarmenetan ez da hauteman beheranzko joera esanguratsurik. 2009ko lehen zatian, ordea, igartzen hasi da prezioen moteltzea negoziazio kolektibora igarotzen ari dela, batez besteko gehikuntza tasa aurreko bi urteetakoa baino nabarmen apalagoa baita, bereziki aurrean adostutako hitzarmenetan.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

27. TAULA

	2004	2005	2006	2007	2008	2009(*)
Indarrean dauden hitzarmenak	4,0	4,5	4,9	4,2	5,0	2,7
- Urtean zehar sinatutakoak	3,9	4,3	5,0	4,1	4,8	2,5
Negoiazio esparruaren arabera:						
- Sektoreko hitzarmenak	4,0	4,6	5,0	4,2	5,2	2,7
- Enpresako hitzarmenak	3,8	4,1	4,1	4,2	4,1	2,7

(*) Maiatza arteko datuak.

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

2.5 Arlo publikoa

Arlo publikoaren aurrekontu eragiketak direla eta, nabarmendu behar da, bereziki, diru sarrera arrunten beherakada garrantzitsua, tasa negatibotan (%-5,2) kokatu zirelako. Jaitsieraren eragile nagusiak zeharkako zergen diru bilketaren beherakada (%-12,4) eta, neurri txikiagoan, zuzeneko zergetan izandakoa (%-1,6) izan ziren. Bi bilakaera horien ondorioz, arlo publikoaren diru bilketa barne produktu gordinaren aldean bi puntu eta hamarren bat murriztu zen, 2007ko %22,3tik 2008ko %20,2ra.

Gastuari dagokionez, gehikuntza tasa aurreko urtekoa baino apalagoa izan bazen ere (%8,1 eta %10,1, hurrenez hurren), oraindik garrantzitsua izan zen, gastu arrunten hazkundearengatik, hots, funtzionamendurako eta pertsonaleko gastuengatik, administrazioko langileen ordainketaren bilakaerarekin bat eginda. Halaber, aipatzekoa da kapitaleko gastuen hazkundera, hartzen ari diren zikloaren aurkako neurriak agerian uzten duena.

2008ko urteko txostena

Diru sarreren atalean, aipatua izan den sarrera arrunten bilakaeraz gain, azpimarratu behar da kapitaleko sarrenen gorakada garrantzitsua, bai inbertsio errealen besterentzeen aldetik bai Europar Batasunak emandako transferentziengatik. Hala eta guztiz ere, bilakaera horrek ez zuen balio izan, ezta hurrik eman ere, eragiketa arrunten beherakada garrantzitsua konpentsatzeko eta, horren ondorioz, finantzaz bestelako eragiketen saldoa oso negatiboa izan zen.

Itundutako zergen diru bilketaren nondik norakoak aztertuta, zuzeneko eta zeharkako zergen eta tasak eta bestelako sarreren zati handiena biltzen baitute, aipatua izan denez, guztiek hazkunde tasa negatiboak jaso zituzten. Horren ondorioz, Eusko Jaurlaritzak likidatutako diru sarrera guztiak %-6,8 murriztu ziren, 2006. urtean hasitako moteltzeari jarraipena emanez. Beherakada nabarmen horrek aurten ere gertatuko da, 2009ko lehen hilabeteetako datuek iradokitzen dutenez, eta hainbat faktorek eragin dute: zikloaren aldaketak, zergetan onartutako hainbat erreformak eta ekonomiaren hedatze aldi higitzen eta finantza merkatuen gorakadari lotuta zeuden sarrera batzuk desagertu izanak.

EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN GASTU BATERATUKO ERAGIKETAK

28. TAULA

Mila euro

	2008	Urte arteko aldakuntza (%)					
		2003	2004	2005	2006	2007	2008
1. SARRERA ARRUNTAK	13.862.745	5,5	9,9	11,2	11,2	11,5	-5,2
2. GASTU ARRUNTAK	12.436.245	9,3	7,5	7,3	8,8	10,1	8,1
Langileen gastuak	2.148.006	5,0	3,5	5,5	5,7	8,1	7,7
Funtzionamenduko gastuak	3.486.839	9,4	6,7	7,0	10,6	12,6	11,6
Finantza gastuak	70.824	7,3	-1,2	-13,1	-13,5	-20,5	-5,3
Transferentzia arruntak	6.730.576	10,9	9,6	8,6	9,4	10,1	6,6
3. ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA (1-2)	1.426.500	-13,3	25,3	32,5	21,9	16,9	-54,1
4. KAPITALEKO SARRERAK	102.499	-22,5	-34,4	13,8	-22,4	-33,2	54,4
5. KAPITALEKO GASTUAK	2.047.404	-2,1	-2,7	2,2	11,1	11,1	15,0
Inbertsio errealak	955.951	-3,3	-2,2	4,3	7,0	10,4	6,5
Kapitaleko transferentziak	1.091.453	-0,8	-3,4	-0,1	15,7	11,8	23,7
6. KAPITALEKO ERAGIKETEN SALDOA (4-5)	-1.944.905	-1,5	-1,5	-1,2	-14,3	-14,0	-13,4
7. FINANTZAZ BESTELAKO SALDOA (3+6)	-518.405	-86,7	925,9	149,6	33,4	20,7	-137,1

Iturria: Ekonomia eta Ogasun Saila.

ZERGA ITUNDUEN BILAKAERA

29. TAULA

Mila euro

	Zergak		Urte arteko aldakuntza (%)				
	2008	2003	2004	2005	2006	2007	2008
PFEZ	4.458.237	5,1	1,1	11,5	10,3	13,6	4,5
- Lanaren eta lanbide jardueraren etekinen atxikipenak	4.322.205	6,2	4,0	8,2	8,7	7,6	7,0
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	312.169	-11,9	-4,8	17,3	13,7	56,2	31,6
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	70.950	5,8	8,4	5,5	8,3	27,1	70,6
- Ondare irabazien atxikipenak	39.872	-27,7	-18,6	53,5	35,7	90,2	-1,0
- Profesionalen eta enpresariaren ordainketa zatikatuak	173.704	1,2	1,6	2,5	5,9	4,0	-4,4
- Kuota diferentzial garbia	-460.662	-4,9	-23,0	12,9	3,7	27,8	-67,4
Sozietateen gaineko zerga	1.692.233	0,1	9,7	26,4	17,5	20,2	-16,8
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	312.169	-11,9	-4,8	17,3	13,7	56,2	31,6
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	70.950	5,8	8,4	5,5	8,3	27,1	70,6
- Ondare irabazien atxikipenak	39.872	-27,7	-18,6	53,5	35,7	90,2	-1,0
- Kuota diferentzial garbia	1.269.242	2,4	12,0	27,8	17,9	15,4	-26,0
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	187.572	-52,8	117,3	48,8	53,3	149,2	6,7
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	81.829	13,9	-8,5	70,3	-3,5	-0,2	7,4
Ondarearen gaineko zerga	181.309	-11,8	-2,7	14,5	18,8	21,4	17,5
ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA	6.601.180	3,0	3,4	16,4	12,7	17,2	-1,6
BEZaren bertoko kudeaketa	3.173.284	10,4	15,1	23,7	16,5	5,7	-13,3
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	185.062	18,0	21,2	10,1	19,7	1,1	-50,3
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	115.544	8,7	0,5	2,9	18,4	-1,3	-14,3
Garraio bide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	49.197	3,4	7,8	5,1	8,4	9,5	-36,1
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.497.171	3,8	7,0	3,5	5,3	6,4	-0,3
Hidrokarburu jakin batzuen txikizkako salmentaren zerga	53.068	39,1	1,9	6,0	5,2	3,7	2,1
Aseguru sarien gaineko zerga	77.141	7,0	7,2	9,6	1,4	8,6	-1,3
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	5.150.632	8,7	12,1	15,5	13,2	5,4	-12,4
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	113.689	5,5	-4,5	1,7	-1,6	14,3	-4,0
BERTON KUDEATUTAKO ZERGA ITUNDUAK	11.865.501	5,6	7,3	15,8	12,8	11,4	-6,6
BEZaren doikuntza	1.092.202	10,0	6,7	-2,3	-0,3	-2,7	-7,2
Zerga berezian doikuntza	-123.504	-9,3	29,1	17,0	-7,1	-90,8	-15,5
ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA	12.834.199	6,1	7,6	13,7	11,4	9,7	-6,8

Iturria: Foru Aldundiak.

Zerga bakoitzaren analisiarekin hasita, PFEZ izan zen 2008. urtean oraindik aldakuntza tasa positiboak lortu zituen bakarra, nahiz eta aurrean ez da hori berriro gertatuko. Zehazkiago adierazita, zergaren emaitza positiboa, batez ere, lanaren atxikipenen gehikuntzari esker eta,

2008ko urteko txostena

neurri txikiagoan, kapitalaren atxikipenen bilakaera onari esker lortu zen, umeen jaiotzarengatik eta adopzioarengatik eman ziren laguntzak eta lanaren atxikipenarengatik onartu zen 400 euroko kenketa bezalako neurriek diru bilketan izan zuten eragin negatiboak konpentsatuz.

Sozietateen zergari dagokionez, zuzeneko zerga horrek pisu handieneko zergen artean diru bilketaren beherakadarik behinena jaso zuen, ekonomiaren moteltze biziaren ondorioz, enpresen etekinak oso nabarmen murriztu zirelako. Halaber, aktibo berriak amortizatzeko askatasuna bezalako neurri berri bat ezarri izanak ere eragin negatiboa izan zuen zerga horren diru bilketan.

Zeharkako zergen artean, azpimarratu behar da BEZaren diru bilketak izan zuen beherakada, ekonomia eta zerga arrazoiengatik. Lehenengoen artean, higiezinaren ahultasuna eta familien kontsumoaren jaitsiera aipatu behar dira, eta bigarrenen atalean, itzulketa azkar, hots hilabeteko epean eta ez urtekoan, jasotzeko eskubidea duten jardueren zerrenda zabaldu izana aipatu behar da.

Azkenik, zeharkako beste zerga batzuetan jaitsiera are handiagoak jaso zirela adierazi behar da. Horietakoen artean, ondarearen eskualdatzearena (%-50,3) eta egintza juridiko dokumentuarena (%-14,3) kokatzen dira, bigarren eskuko etxebizitzaren salmentak izan zuen beherakada islatzen baitute. Orobat, oso adierazgarria izan zen garraio bide jakin batzuen gaineko zerga bereziaren jaitsiera (%-36,1), automobil gutxiago saldu zirelako.

2.6 Finantza arloa

2007ko krisiaren aurreko urteetan munduko ekonomiak bizi zuen testuinguru dinamikoak eta egonkorrak arriskua gutxiegi baloratzeko egoera bat ekarri zuen. Testuinguru baikor horretan, interes tasa apalek eta kreditua lortzeko erraztasunak aktibo errealean eta finantzarioen salneurria gorarazi zuten, oso maila altuetan kokatuz. Halaber, finantza sistemak lortu zuen zorpetze maila oso altua zen eta arlo pribatuaren zorrak oso handiak, kasu askotan errenta gordin erabilgarria bera baino handiagoak.

2007ko udan finantza merkatuaren zurrumbilo aldi gisa hasi zena, arrisku handiko estatubatuar hipotekek eraginda, finantza krisi orokorra bihurtu zen 2008. urtean zehar, mundu osora zabaldu zena eta ekonomia errealari ere kalte egin ziona. Arriskuak hartzeko beldur handiagoak, hazkunde aurreikuspenak etengabe okertzeak eta ekonomia eragileek konfiantza galtzeak bankuen arteko sistemaren likidezia gutxitu zuten, herrialde guztietako barne eskaria oso nabarmen kaltetuz. Eragin negatibo hori garapen bidean dauden herrialdeetara ere hedatu zen, nazioarteko finantza merkatuetan parte hartze txikiagoa zutenez krisiak eragin arina izango zuela uste bazen ere.

Egoerak halako larritasuna hartu zuen ezen gobernu eta banku zentral nagusiek erantzun sendoak eman behar izan baitzituzten, moneta eta zerga eremuei larrialdiko laguntzak eskaintzeko planak onartuta. Horretarako, bankuen arteko merkatuetan likidezia sartu zuten. Halaber, gobernuak zailtasunetan zeuden finantza erakundeak erreskatatzeko neurri bereziak hartu zituzten eta banku zentralak, aldi berean, moneta politika leundu zuten, inoizko maila apalenetara iritsiz. Banku zentral nagusien portaera horrek, hasieran bakarka eta gero modu koordinatuan, sistemari likidezia sartuz, nabarmen lagundu zuen behin eta berriro agertu ziren moneta tentsio biziak baretzen. Ekintza horien guztien artean, azpimarratu behar da munduko ekonomia nagusien banku zentralak hartutako neurri bateratu bat, esku hartzeko interes tasak 50 oinarri puntu jaistearen ekarri zuena. Hain zuzen ere, Amerikako Estatu Batuetako Erreserba Federalak zazpi aldiz jarraian merkatu zuen diruaren prezioa eta lau puntuz beheratu zuen bere esku hartzeko interes tasa, aurrekaririk gabeko maila batean, %0 eta %0,25 bitartean, kokatu arte.


Europako Banku Zentralaren erabakiak zertxobait aldenitu ziren bide horretatik. Krisiak Eurogunearen ekonomia gogor astindu zuen arte eta Europako zenbait banku kaltetuta agertu ziren arte, EBZk ez zuen esku hartzeko interes tasak jaisteko inolako neurriarik hartu. Are gehiago, 2008ko uztailean, europar erakunde hori interes tasak igotzera iritsi zen, Atlantikoaren beste aldean murrizketak bata bestearen ondotik gauzatzen ziren bitartean. Uztailean geroztik, beherakadak hasi ziren, guztira 325 oinarri puntu jaitsita, 2009ko maiatzean finantzazioko eragiketa nagusietarako tipoa %1ean kokatu arte, Moneta Batasuna sortu zenetik inoiz ezagutu ez den maila bat delarik. Ingalaterrako Bankuak, berriz, Europar Batasunak baino lehenago hauteman zituen krisiaren ondorioak, finantza arloak bertako ekonomian pisu garrantzitsua duelako. Higuezinen merkatuaren amiltzeari eta BPGren moteltze biziari aurre egiteko, esku hartzeko tasa urratsez urrats murriztu zuten %0,5ean kokatu arte, banku hori 1694. urtean sortu zenetik inoiz izan duen mailarik apalena delarik. Japoniako, Txinako, Suediako, Suitzako eta Indiako banku zentralak ere erreferentziako interes tasak gutxitu zituzten.

2008ko urteko txostena


Banku zentralerako erreferentzia tasak
Ehunekoak

20. irudia


AEB




Erresuma Batua



Eurogunea



Japonia



Iturria: Espainiako Bankua.


2009ko erdialdean, ekonomia industrializatu gehienetako interes tasa ofizialak %0tik oso hurbil kokatuak ziren eta horrek margen txikia uzten dio moneta politikari erabakiak hartzeko eta ekonomiaren susperraldian tresna eraginkorra izateko. Horren ondorioz, eta kontuan hartuta jaitsiera horiek ez direla nahiko izan ekonomiaren beherakada galgatzeko, agintari monetarioak behartuta egon dira bestelako neurriak hartzera, horren ohikoak ez direnak,

finantza merkatua egonkortzeko ahaleginean. Izan ere, likidezia etengabe sartzeaz gain, merkatuan zuzenean esku hartzeari ekin zioten, zor publikoa eta aktibo pribatuak erosiz.


EBZk euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak
Moneta unitateak euro bakoitzeko

21. irudia


Dolarra




Suitzako frankoa



Libera Esterlina



Yen



Iturria: Espainiako Bankua.

Dibisa merkatuetan, finantza ezegonkortasuneko aldiek, esku hartzeko interes tasen bilakaerak eta une bakoitzean ekonomiaz argitaratzen ziren emaitzek truke tasaren nondik norakoa

2008ko urteko txostena


baldintzatu zuten. Euroaren truke tasak gorabehera handiak ezagutu zituen 2008. urtean zehar. Hain zuzen ere, euroaren balioak %3aren ingurua irabazi zuen, baina goranzko eta beheranzko mugimenduak oso garrantzitsuak izan ziren eta portaera heterogeneoa erakutsi zuen diru batzuen eta besteen aurrean. Alde batetik, Euroguneko ekonomiak urte hasieran erakutsi zuen sendotasunaren ondorioz, euroak balio handia irabazi zuen, baina hilabeteak aurrera zihozten neurrian europar txanpona ahulduz joan zen dolarraren eta yenaren aurrean. Urteko batez bestean neurtuta, bi txanpon horien aldean %7 eta %25 galdu zuen, hurrenez hurren. Beste aldetik, libera esterlinaren aurrean %25 baino gehiago handitu zuen euroak bere balioa. 2009ko lehen hilabeteetan, euroak portaera gorabeheratsu horri jarraipena eman zion, baina urtea aurrera joan ahala eta AEBetako eta Japoniako ekonomien emaitzak ezagutu diren neurrian, euroa garestitu da bi herrialde horietako diruekiko. Libera esterlinaren aldean bilakaera hobea erakutsi zuen. Zehazkiago adierazita, libera esterlinak galera handiak izan zituen dolarraren eta euroaren aurrean, bertako ekonomiaren eta finantza sistemaren narriadura biziaren ondorioz.

Merkatuetan erroto ziren ziurgabetasunak eta gorabeherak beren isla izan zuten munduko burtsa nagusien norabidean. Finantza krisiak okerrera egiten zuen neurrian eta ekonomia jardueran zuen eragina egiaztatzen zen heinean, errenta aldakorreko aktiboen prezioa hondoratzen ari zen, joera hori gainontzeko arloetara ere hedatu zelarik. Hain zuzen ere, mundu osoko burtsa merkatuek %35 eta %45 bitarteko balioa galdu zuten eurotan neurtuta. Portaera hori 2009ko lehen hilabeteetara ere luzatu zen eta apirila arte itxaron behar zen zuzenketa bat hautemateko, martxoan gutxieneko balioak jaso ondoren. Aurten burtsen egoerak nabarmen hobera egin duen arren, oraindik ez dira berreskuratu aurreko hilabeteetan galdu zen finantza aberastasuna.

2008. urte ia osoan, euriborrak barnean hartzen zituen arrisku primak oso handiak izan ziren, finantza ezegonkortasuna areagotzen zenean igotzen zirenak, une batzuetan ia 200 oinarri puntuetara iritsita. Izan ere, euriborra sortu zenetik inoizko balio handienak markatu zituen urte horretan, 2000ko urrian ezarri zen %5,34ko maila gaindituta. Beste aldetik, Europako Banku Zentralak onartu zituen beherakadak ez ziren berehala igarotzen euriborraren bilakaerara eta urte amaiera arte itxaron behar zen bi adierazle horien arteko aldea murriztu zela egiaztatzeko. Harez gozotik, urte baterako euriborraren eta EBZk ezarritako erreferentziako interes tasaren arteko aldea gutxitzen ari zen, 2009ko maiatzean gutxieneko balioak berriro lortuz. Hain zuzen ere, urte baterako euriborra %1,61era murriztu zen, arrisku prima %0,61era gutxitu zela agerian utziz, 2008an izan zuena baino askoz ere txikiagoa delarik, baina izan ohi duenarekin bat eginez.

Urte baterako euriborraren bilakaera

22. irudia



Iturria: Espainiako Hipoteka Elkarte.


Gobernu eta banku zentralak hartutako neurriak asko izan ziren arren, ez ziren nahiko izan finantza merkatuetako tentsioak baretzeko eta finantzaziorako baldintzek murriztaileak izaten jarraitu zuten. Hamabi urtez baino gehiagoz hazkunde tasa bi zenbakien ingurukoa izan ondoren, arlo pribatuari emandako kredituen gehikuntza tasa bat-batean moteldu zen. Joera hori 2009ko lehen hilabeteetan areagotu da. Ziurgabetasunak, langabezia tasa altuak eta euriborraren jaitsierak kredituen interes tasetara berandu igaro izanak azaltzen dute apaltzeko joera hori. Bai etxebizitzak erosteko kredituek bai kontsumorako kredituek jaso zituzten hazkunde txikiagoak.

Hala ere, kredituen hazkundearen ahultasuna ez zen finantza erakundeen kezka bakarra. Ekonomiaren abagune txarrak eta higiezinaren burbuilaren amaierak berankortasunaren gorakada garrantzitsua ekarri zuten, %2,07ra igo baitzen, 2007ko amaieran zegoen %0,9 bikoiztuz. Gorakada nabarmena izan duen arren, oraingoz berankortasuna ez da gehiegizkoa, bereziki Estatuko gainontzeko erkidegoetan jaso ziren datuekin alderatzen bada. Izan ere, epealdi berean berankortasuna %4,0ra iritsi zen Estatuan.


Kredituen eta gordainluen bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

23. irudia

Kreditu pribatuak



Gordailu pribatuak



Iturria: Espainako Bankua.

Azkenik, bankuetako gordailuek 1986. urtetik jaso duten emaitzarik onena lortu zuten, banku erakundeek eskaini zituzten interes tasa erakargarriari esker, bereziki urteko lehen erdian. Bankuek ahalik eta likidezia handiena nahi zuten, merkatuaren eskasiari aurre egiteko. Halaber, familiek aurrezteko joera hartu zuten, gutxiago kontsumituz eta inbertituz.

